

Astoa

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

HISTORIAKO

ASTORIK



OSPETSUENAK



Astoa

Juan Manuel Etxebarria Ayesta

HISTORIALAKO
ASTORIK 
OSPETSUENAK



ibaizabal



Astoa

HISTORIAKO

ASTORIK

OSPETSUENAK

MITO, ESAERA, FABULA, ISTORIO, IPUIN,
ESAUNDA ABESTI ETA ABARRETAN

Astoaren jatorria

Bibliako "Noeren Kutxa eta Uriola Unibertsala" kontraeratik aparte, munduko kontinente bitara jo behar dugu astoaren arrasto bila. Alde batetik Afrikara eta bestetik Indiara.

Beharbada, dokumenturik zaharrenetarikoa Egipton daukagu. Antigualeko gauzetan aditua den Zahi Hawas jaunak argitu berri du arkeologo batzuk egindako deskubrimentua. Hauxe: duela 50000 urteko Egiptoko errege baten hilobi-kamara, besteak beste, hamar astoren eskeletoak aurkitu dituztela. Beraz, badirudi faraoien garaietan ere astoa erabili egiten zela bidaiatzeko.

Dirudenez ba, Afrikako asto basatitik etorri omen zaigu gure etxeetan hain geure izan dugun asto hezia, gizakiaren beharleku gogorretan laguntza estimagarria izan dogularik.

Afrikar asto honek belarriak luzeak, luma urdinabarra, mutur eta hanka barrenak zuriak ditu. Mendi zein ibar bedartsuetan bizi da eta berezko begetarianoa dugu.

Basatiak direnean taldeka bizi dira. Bizkorra da eta oso segurua ezleku edo eta bide txarretatik ibiltzean ere. Horregatik hartu du gizakiak lagun bezala astobeharretarako.

Gainera, astoak instinto berezia du gaez edo eta lainaberarekin orientatzeko. Horregatik holako kasuetan

gure baserritarrek astoa botatzen zuten aurretik eta eurak atzerik hara jarraitu etxera heltzeko.

Astoa noiz hezi edo domestikatu zen ez dago argi antzinasunean galtzen garelako, baina antza denez, Egiptokoek K.a. 4000. urtean hezitzen hasi ziren. Geroago, K.a. 2000. urteko Hammurabi-ren kodigo famatuan ere aipatzen da astoa, eta zigor oso gogorrek ere bai orduko jainko edo eta nagusiren bati astoa ostu edo gauzeztanduz gero.

Adinari dagokionez, 25tik 50 urtera bitartean bizi da, eta orduko 50 km egiteko gauza da. Adina, Euskal Herriko esaera zahar batek ere baieztatzen du. Aikomen: "Gizonak hiru astoaldi, astoak hiru txakurraldi, txakurrak hiru hesialdi, hesiak hiru urte". Beraz, astoak, 27 urte.

Asiako asto basatia, hemion izenez ezagutzen dena, Asiako estepetan eta ia basamortuetan bizi da. Afrikakoa baino handiagoa da, belarri txikiagoekin eta narru-luma nabar-gorriskarekin. Afrikakoa baino bizkorragoa da, orduko 70 km egiteko kapaz delarik.

Basamortuan bizi arren, beti dabil uraren ondoan behar-beharrezkoa baitu. Hau ere taldean bizi da, eli txiki-etan, eta emeagandik urte birik baten astakume bakar bat jaioko da eta eurite garaian egin ere.

Asian lau asto mota bereizten dira: Persiako "ona-gro", Tibet-eko "kiang", Indiako iparmendebaldeko "khur edo ghokar" eta Mongoliako "kulan edo txigetai".

Astoa garraiorako ezeze, okela eta narru ustiapenerako ere erabili da. Hortik aparte, behorrek gurutzatuz, mandoa atera da, astoa bera besteko edo garraiolari hobea. Astoaren erraza hobetzeko, "zetaren ibilbidea" aprobetxatzen zuten Afrikako eta Indiako asto-astarrak gurutzateko.

Sailkapen zientifikoan, latineko terminologia erabiltzen da: Afrikako astoa = *Equus asinus*; Asiako onagroa = *Equus hemionus onager*; kiang = *Equus hemionus kiang*; khur = *Equus hemionus khur*; eta kulan = *Equus hemionus-hemionus*.

Gaur egun, era bateko edo besteko makinaria sortu denetik, astobeharrok beste era erosoago baten egiten dira, eta astoa ia-ia desagertzeaz dago batez ere mundu industrializatuan.

Egin dena egin dela, astoak historian zehar bere bidea egin izan du, eta jarraian bide horretan eginiko haronako batzuk aidatu baino ez ditugu egingo, astoaren garrantzia norainokoa izan den adierazteko.

Asto izenaren etimologiaz

Ez dakigu argi nondik datorkigun izen hau. Gure R. M. Azkueren ustez, "as" erroa litzateke eta "-to" diminuti-boa. K. Mitxelenak "arsto > asto" aipatzen digu. R. Lapesak Latineko "asinus"-etik datorrela esan zuen.

Euskerara ez dakigu, baina gaztelerara latineko "asinus"etik etorri da, eta hortik "asno", eta horrela dokumen-

tatzen da 1076an. Geroago baten, "burro" ere erabiltzen hasi zen sinonimo bezala, baina, izatez, " lat. burrus-a-um" = "rojizo, rojo" da, hau da, gorriska, asto mota batzuen narrulumen koloreagatik.

Latineko "asinus"-etik, asto ez, baina beste bilakaera kurioso eta interesgarri bat heldu zaigu historian zehar.

Latinean, herri latinean hobeto esanda, "asinus"-en eratorri bat da "asinaris" eta baita "asinarius" ere, hots, astazaina.

"Asinaris" horretarik, euskalkirik euskalki hainbat maileru aurkitzen ditugu, izen arruntetan zein pertsona izen-abizenetan. Mailegu arruntan artean, horra hor: azeari, azebari, azegari, azagari, azeri, axeri, azari... eta izen-abizenetan: Acenari, Aznar, Aceari, Azari, Aceariz, Azariz...

Aldaketa semantikoz, azeri = luki edo gaztelerazko "zorro" dugu. Izen-abizenetara bagoaz, aspaldikako ohitura da animalia izenak pertsonetan erabiltzea (Azkuna, Leon, Lopez, Olloa, Otsaran, etab.).

Aldaketa semantikoa kasu gehiagotan ere gertatzen da herri-erabileraren eraginez. Hona hemen, besteak beste, gaztelerazko "lobo" euskeraz "otso" dugu eta gaztelerazko "oso" euskeraz "hartza". Legez, "oso" k "otsoa" eta "lobo < lat. lupus" ek "luki edo lupi" behar luke izan, baina berbak diakronikoki etorri zaizkigun moduan hartu eta erabiltzen ditugu.

Astoa Euskal Herrian

Euskal Herrira ere heldu zen astoa, eta batean bestean sekulako garrantzia eduki du bai baserrietako nekazaritzako lanetan eta bai Euskal Herriko artzantzan ere.

Baserrian, era guztietako beharretarako erabili izan da, asto-basta edo eta asto-otzarak bitarteko, norbera gainean joateko zein edozein karga eramateko batetik bestera, etxe inguruan zein urrunagoan.

Artzantzan, artaldeak udako larreetatik negukoetara eta alderantziz eramateko egiten ziren haronakoetan garrantzi handia zuen astoak, batez ere, udako larreetatik baserrietara jetzitako esnea eraman behar zuenean.

Euskal Herriko astoak, txikiak, indartsuak eta izaera berezikoak direnez, munduko hainbat lekutatik eskatu izan dira astobeharretarako.

Adibide gisa, aikomen bat eta bera kuriosoa: XV. Mendean, Fray Juan de Zumarraga durangarrak, Mexikoko artzapezpiku izan zenak, astoa aukeratu zuen Bizkaian ezagutu zituen etxe-abere guztietatik, hango indiarrek zama handiak eraman beharrik eduki ez zezaten.



Astoa biblian

Astoa sarri agertzen zaigu Biblian, bai Testamentu Zaharrean eta bai Testamentu Berrian ere.

Testamentu Zaharrera bagoaz, besteak beste, "Hasiera" ataleko Noeren eta "Zenbakiak" ataleko Balaamen eta bere astemearen arteko gertaerak aipatuko ditugu, Testamentu Berrian, Maria, Jose eta Jesukristorenak.

Noe eta astoa (Hasiera, 7-8)

Bibliako "Hasieran" irakur dezakegunez, behin batean, Jaungoikoak hauxe esan zion Noe gizon zintzoari: "Uholde uni-bertsala bota behar dut mundura eta egin ezazu barku gisako zurezko ontzi berezi bat. Behin ontzi hori akabatuz gero, bertan sartu zeu eta zeure senitartekoak lehenengo eta jarraian beharrezko ikusten dituzun animalia bikoteak, ar-emeak. Gero, itxaron atertu eta lurra berrito jo arte".

Halaxe egin zuen. Barku hori egin, senitartekoak sartu eta animaliak aukeratzen hasi zenean, astoa begiztatu zuen eta esan:

—Hi, asto, ator oboan-oboan hire ingurutik ibiltzen den astar horrekin batera eta sartu biok ontzi honetan, uholde ostean ere astobeharrik egongo duk munduan eta.

Iragarritako uholde hori etorri zen, eta urok joan eta lurra agertu zenean, uste denez, hantxe, Ararat mendian (gaurko Armenian) jo zuen lurra Noeren ontziak.

Noeren sendiarentzat eta gainetiko animalia bikote guztientzat bizitza berri bat hasi zen. Gure asto eta astarrak ere euren astasendia sortu zuten, eta urteak joan urteak etorri, munduan zehar zabaldu, beti ere, gizakiaren beharrianetarako.



Balaamen astemea (Zenbakiak, 22, 22-35)

²²Abiatu zenean, biziki haserretu zen Jainkoa. Balaam asteme gainean zihoan, bi zerbitzari lagun zituela, eta Jaunaren aingerua jarri zitzaion aurrean bidea oztopatzen. ²³Astemea, Jaunaren aingerua ezpata eskuan biderdian ikustean, bidetik saihestu eta landan zehar joan zen. Balaamek jo egin zuen, berriro bidera eramateko.

²⁴Gero, mahasti artean, albotara bi harresi zituen bide estu batean gelditu zen Jaunaren aingerua. ²⁵Astemea, hura ikustean, harresian arrimatu zen, Balaamen berna harresiaren kontra zanpatuz. Balaamek jo egin zuen berriro.

²⁶Jaunaren aingerua aurreratu eta inori eskuin-ezkerrera egiten ez uzteko moduko estugune batean gelditu zen. ²⁷Hura ikustean, etzan egin zen astemea Balaamen azpian. Haserretu eta makilaz jo zuen Balaamek. ²⁸Orduan, Jaunak hitz egiteko dohaina eman astemeari, eta honek esan zion Balaami:

—Zer egin dizut nik, hiru bider horrela jotzeko?

²⁹Balaamek erantzun:

—Niri burla egiten ari haiz! Labanarik banu, hementxe hilko hinduket.

³⁰Astemeak erantzun zion:

—Ez al nauzu, bada, zeure astemea, betidanik gainean eraman zaituena? Eta inoiz portatu al naiz honela zurekin?

—Ez! —erantzun zion Balaamek.

³¹Orduan, ezpata eskuan bide erdian zegoen aingerua eman zion ikustera Jaunak Balaami. Lurreraino ahozpeztu zen Balaam,

³²eta Jaunaren aingeruak esan zion:

—Zergatik jo duzu hiru bider astemea? Neu atera natzai-
zu bidea oztopatzera, okerreko bidetik baitzoaz.³³ Astemeak ikusi
eta hiru bider saihestu nau. Bestela, hila zintudan dagoeneko,
bera bizirik utziko nuelarik.

³⁴Balaamek erantzun zion Jaunaren aingeruari:

—Oker jokatu dut! Ez nekien bidea oztopatzen zidana zeu
zinenik. Baina nire bidaia atsegin ez bazaizu, itzuli egingo naiz.

³⁵Jaunaren aingeruak erantzun:

—Zoaz gizon horiekin, baina nik adierazitakoa bakarrik
esango duzu.

Horrela, Balaken buruzagiekin joan zen Balaam.





Maria eta Jesus umea asto gainean

Testamentu Berrira bagatuz, astoa, edo eta berak simbolizatzen duen apaltasuna, sarri agertuko zaigu Jasukristoren joan-etorrietan.

Erromatarren inperioa Israeleraino zabaldua zegoenean, Augusto enperadore erromatarrak lehen errolda egiteko agindua eman zuen. Horretara, Jose, Daviden familiakoa eta jatorrikoa zenez, Galileako Nazaret herritik Judeako Belen zeritzan Daviden herrira igo zen bere emazte Mariarekin, erroldatzera. Maria haurdun zegoen, eta Josek Maria asto gainean eraman zuen. Belenen errolda egiten zeudela, Mariari haurra izateko egunak bete zitzaizkion eta Jesus, lehen semea, izan zuen. Oihaletan bildu eta abereaska batean ezarri zuten, ez baitzen ostatuan haientzat lekurik. Jesus jaioberriaren ondoan, hantxe zegoen astoa, beste abere batzuekin batera Jesus umeari arnasa beroa ematen.

Jesusen jaiotza zela eta, Herodes erregeak jaioberriak hiltzeko agindua eman zuenean, Josek amets bat izan zuen eta Jaunaren aingeru batek esan zion Egiptora ihes egiteko. Halaxe egin zuen, eta bide luze hori egiteko berriro ere astoa, Maria eta Jesus umea gainean direla. Egipton egon ziren Herodes hil arte, eta horrela bete zen Jaunak profetaren bidez esana: "Egiptotik etortzeko dei egin nion neure semeari."

Jesukristo berbera asto gainean

Jesus handia egin zenean, predikatzen hasi zen herririk herri bere apostoluak lagun zituela.

Egun batean, Jesusek Jerusalem hiri nagusian Mesias bezala sartzea erabaki zuen, eta begira Ebangelioak zer eta nola dioskun: (Mt. 21, 1-11)

¹Jerusalem-era hurbildu zirenean, Oliamendi inguruko Bet-fage herrixkara iritsirik, bi ikasle bidali zituen Jesusek, ²esanez: "Zoazte aurreko herrixka horretara; berehala, asteme bat aurkituko duzue lotuta, eta astakume bat harekin; askatu eta ekarri niri. ³Eta inork ezer esaten badizue, erantzun: "Jaunak behar ditu, baina berehala itzuliko ditu".

⁴Hori Jainkoak profetaren bidez esana bete zedin gertatu zen:

⁵Esan Sion hiri ederrari:

Hara, badatorkizu zeure erregea,
apal eta astotxo baten gainean,
astakume baten gainean.

⁶Joan ziren, bada, ikasleak, eta Jesusek agindu bezala egin zuten. ⁷Astemea eta astakumea ekarri eta beren jantziak bizkarreran ezarri zizkieten, eta Jesus gainean eseri zen. ⁸Askok eta askok jantziak zabaldu zituzten bidean; beste batzuek, berriz, zuhaitzei adaskak moztu eta bidean hedatu zituzten. ⁹Aurretik eta atzetik zihoan jendeak honela zioen oihuka:

"Hosanna Daviden Semeari!
Bedeinkatua
Jaunaren izenean datorrena!
Gora Jainko gorena!"




¹⁰Jesus Jerusalemen sartu zenean, hiri osoak, asaldaturik, galdetzen zuen:

—Nor dugu hau?

¹¹Jendeak erantzun zuen:

—Jesus profeta da, Galileako Nazaretekoa.



Astoa abestietan

Euskaldunon bizitza kantuz beterik dagoela esan genezake, eta gai askoren artean astoa eta mandoa ezin geratu kanpoan.

Aikomenzan ba, besteak beste, astoaren eta mandoaren inguruko abesti esanguratsu batzuk, gaur ere kantuan jarraitzeko.

Gure astoa Balaan

(Errepika)

Gure astoa Balaan

Izan zeraukun elizan.

1

*Asto koskor bat zela debozioetan
sartu zen elizako koro barne hetan
eta ihanka lotu bere otoitzetan,
aldereko buketak ausikiz artetan.*

2

*Utzirik lo kuluxka ta konfesionala,
jaun ertorak hartu du kurutze makila,
eta hartaz zanpatuz deabrurat zoala,
elizatik aizatu oi, gure kabala.*

3

*Zegaitik ez den haizu elizan astorik
pentsaketan ari da Balaan geroztik,
orhoit baita asto bat beretter izanik
lehen eguberria gertatu zelarik.*

Mixel LABEGERIE

(Uztaritze 1921 - Akitaniako Tolosa 1980)



Asto bat daukat saltzeko

1

Asto bat daukat saltzeko
Peliz erosten asteko,
kuartotxo bi nai nituzke
esku artean sartzeko.
Geure astotxo zartxua
aitak etxean sartua
bostaldiz garbatu dako
berori ezagutua.

2

Asto belarri tristea
bata bezela bestea,
dirurikan ezin artu
izan arren ustea.
Zergatik etzan gaztea
itxurabako trastea?

3

Peliz bizi da Zegaman
astorik eztu eraman,
albaiteruak bazekien
tratu orren berri boladan
ark esan dio nola dan.
Ai egon balitz Malagan!

R. M. AZKUE
Cancionero Popular Vasco II, 485

Agur-agur astoko; ongi etorri otsoko

—Agur, agur, astoko.

—Ongi etorri, otsoko.

—Gaurko nere afaria ire buru ta bearri.

—Ez, ez, otsoko. Arako an artalde, artzainik ez du bat ere; baldin joaten bazindeke, ziriko pareá zenduke.

—Oinean diat arantza, ezin frinka berealaxe.

—Arako an ermita, meza entzun bear diat.

—Asto zarra mukizu, sobera malizi dakizu; berriz arrapa-tzen bazaitut errekalde unetan, meza entzute-lanik izanen eztuzu.

R. M. AZKUE

Cancionero Popular Vasco II, 808. G.N-Bera





Astoa ikusi nuen

1

Astoa ikusi nuen betaurrekoekin
buruan txapela ta gabardinarekin
ilea luzea ta bigotearekin
hizketan egon nintzen atzo berarekin.

2

Astoak esan zidan triste zegoela,
oso zatarra zela bere ikastola,
berak gure gelara etorri nahi zuela,
gure artean ondo konponduko zela.

3

Baietz esan nion nik, lasai etortzeko
arkartza eta bloka dendan erosteko,
astoa izan arren trankil egoteko,
asko ikasi eta txintxo portatzeko.

4

Astoa etorri zen urrengo goizean,
jantzi polit bat zeukan jantzirik soinean.
Maixuak esan zion, exeri lurrean,
astotxo, ez bai zera kabitzen mahiean.

5


Hondartzako eguna iritxi zenean,
astoa portero ta denak fubolean.
Baloï batek jo zuen astoa buruan,
lurrera erori zen hiltzeko zorian.

Astoa abestietan

6

Azkar deitu zioten sendagileari,
bai ta Donostiako anbulantziari.
Orain klinikan dagon asto gaixoari
esan nahi nioke: "lehen bait lehen etorri".

Herria Ohiuka, 22-23 or.





Arre-arre mandoko

Arre-arre mandoko
bihar Urduñarako,
andik zer ekarriko
zapata ta garriko
eraztun ta eriko.

Herrikoa

Domingo Kanpaña

Mando baten gañian
Domingo Kanpaña,
ez dijoa utsikan
mando orren gaña.
Azpian dijoana
mandoa da, baña
gañekoa ere, bada
azpikoa aña.
Mando baten gañian
bestia, alajaña.

Herrikoa

Astoa abestietan

Asto kontuak

Aita batek:
Ikusirik pasatzen
astoak ugari,
aita batek algaraz
diyo semeari:
Begirakiyok Pello
ire anaiyari.

Semeak bereala
erantzun du ene!
Oyek nere anaiyak!
Ez nuben nik uste
berrorrek zituela
orrenbeste seme.

Letra: S. BAROJA
Musika: R. SARRIEGI
Ecos de Vasconia 42. zkia.

Asto bibolinjolea

Txirintxaketan akerra dantzan
Astoa bibolin joten
Azagarria suari puzka
Erbia urun eralten.
Txirintxaketan katua lotan
Idia labesuginen
Kukurrukua ollategian
Txakurra etxe jagoten.



Astoa mitoetan

Astoa mitoetara ere heldu da, eta Euskal Herri zahar honetan aurkitu ere egiten ditugu belaunaldiz belaunaldiko kultura transmisioan.

Aikomenzan ba, Gorbeia inguruan herririk hara jasotako mito bat edo beste gure sineskera zaharraren ezau-garri lez.

Asto demoniñoa

Arratiako Bedia partean, Kolasiño dago eta bertan ur-errota bat. Egun baten, gizon bat joan zen Kolasiñoko errota horretara gari-zorro bat ehoten.

Asto gainean zeraman eraman ere alosoko gari-zorro hori eta errotara bidean zihoala, asto bat plantatu zitzaion bidezidor erdian eta bere purrustada eta ostikadekin, enbarazu egin eta ez zion pasorik uzten.

"Kenakit enbarazutik" esaten zion, baina hark astoak zirkinik ere ez zion egiten. Berriro ere esan zion kentzeko, eta beste hainbeste, zirkinik ere ez.


Halakoren baten, heserretuta, maldizioka hasi zitzaion "txori gorriak" botaten esku-makila jasota. Maldiziook bota bazituen ba ze, ha astoa hazi eta hazi egin zitzaion bildurgarrizko itxura hartuaz.

Gizona sustatu egin zen demasean eta sustetarik, aitaren eta semearen eginik badino berekitan:

—Zer Jaungoiko da ba hau asto madarikatu hau? Hau ez da parte onekoa, Jesus, Maria eta Jose, erduzie laguntzera, osterantzean, nireak egin du!



Horiek berbok entzun zituenean, hark asto deabruak alde egin zuen damorro baten Lekubasoko presarantz, eta handik gehiago ez ei du ikusi inork ha zoritxarreko asto deabrua.



Supelegorreko astakume deabrua

Behinola, Orozko aldeko artzain batek bere ardiak eroan zituen Gorbeia ondoko Itxina barruan dagoen Supelegor kobazuloa. Edur itxura zeukan eguraldiak, eta badaezpada, zein edurra loditu, kobazuloan utzi zituen ardiok.

Arrasti beranduan, ha artzaina etxerako bidean plantatu zen Itxinako hazduitik zehar. Atxuloko begia igaro eta lasterrera, astakume bat barruntatu zuen saltokari eta arrantzaka.

Artzainak, astakume hori goiti beheti, aurrera egin zuen larrea behera gautu baino lehenago etxea joteko.

Joanean-joanean, astakumeak atzerik hara jarraitzen ziola konturatu zen. Jarraitu bakarrik ez, ezgauzak egiten hasi zitzaion ha astakumea, bateko ostikoka, besteko ausika eta gainetiko itzulipurdika.

Arineketan hasi zen ha artzaina bildursartu eta guzti. Noizbehinka atzerantz ere begiratzen zuen, eta halako batean ez du ikusten ba ahotik sua dariola!

Ene! —esaten zuen berakautan—, zerk izan behar dik honek, hau astakume hau ez duk parte onekoa, baina, ez horixe, niri neuri gehiago egitekorik ez zegok, eta ikusiko dik horrek dena delako horrek ea gehiago nor den!

Pagadui batetik zihoala, artzainak hartzen du pago-makila endemoniño bat, joten du buru-buruan astakumea eta ene! Deabrua berbera asto itxuran!

Arineketan ez, hegaz hasi zen artzaina odolak ur egiteko moduan, eta deabrua atzerik hara.



Joan eta joan, halakoren baten Orozko ergoieneko Olarteko kanpandorreko abemarietako kanpaiotsa entzun zen.

Kanpaiotsaren dei-barruan, deabrua podere barik geratu zen eta hark artzainak bizirik gorde zuen bere arima. Baina luzaroan egon omen zen sustosartuak eta bildursartuak jota jazorikoa ahaztu ezinik. Ez zen gutxiagorako, ez horixe!



Asto kexatiak eta Zeus

Behin batean, greziar mundu zaharreko Zeus jainkorik handienari oso kexati agertu zitzaizkion astoak esanaz:


—Hara Zeus, oso bizimodu gogorra daramagu eta ez dago horretarako eskubiderik. Bizitza erosoago bat eraman nahi genuke eta zeugana gatoz arrenka ia zerbait hobeia ematen diguzun.

—Aiko, astoak, zuek asto-beharretarako jaio zarete, baina zuen destinoa aldatu gura baduzue, asto guztion txizaz erreka handi bat sortu behar duzue.

Zeusek bazekien hori ezinezkoa zela, baina astoak sinestu egin zioten eta arrantza-hotsean zabaldu zuten berria.

Astoren batek beste asto baten txiza barruntatzen zue-nean, bera ere txiza egiten hasten zen erreka handi hori lortu eta destinoa aldatzeko.

Baina dena alperrik. Eginak eginda ere, gaur arte. Gaur egun ere horrela dabilta astoak beste asto baten txizari eta gorotzari usainka, txakurrak uzkairek uzkairek usainka dabilta bezala behinolako Pariseko uzkerria zein txakurrek bota zuen argitu nahian.



Jazorikoak

Grezian astoa zaldi

Jazoera bitxi hau, beinke bitxia, Kristo aurreko V. mende inguruan gertatu omen zen Grezia aldean.

Garai haretan, Persia Asia parteko herri handi eta indartsua zen, eta bere inperioa zabaltze horretan, Greziara ere jo zuen. Grekoak defenditu egin zuten islaz beteriko euren lurraldea. "Gerras Medicas" izenez ezagutzen dira Persiaren eta Greziaren arteko gerrak.

Grekoek itsaso ertzak barkuz defenditu zituzten, baina persiarrak lur barruetara sartzen zirenean oinezkoz edo eta zaldizkoz baliatzen ziren.

Persiarrak asko ziren, eta grekoek ere ez zuten beste zereginik era bateko edo besteko neurriak hartzea baino. Eta halaxe egin omen zuten. Nola? Ba, oinezkoak zaldizko eginaz. Horretarako, oinezko guztientzat beste zaldi ez zeukatenez, astoa zaldi izendatu zuten, hau da, astoari zaldiaren kategoria eman, eta jakina, hainbeste "zaldun" berriekin, irabazi egin zuten.





“Txirrita”-ren astakumea

Euskal Herri osoan ezagun-ezaguna dugun gure "Txirrita", bertsolari ospetsua izateaz gain, bromista edo adarjotzaile abila izan omen zen.

Behin batean, herriko sagardotegi edo tabernan elkartu ziren elkartu beharrekoak eta euren artean eskean ibiltzen zen itsu gizajo bat ere bai.

Han zebiltzan bertsoa gora, bertsoa behera, bakoitzak berak dakiena botatzen Txirritaren maisutzapean.

Tabernako barra barrualdean aita-alabak zeuden, eskatu ahala ardo, sagardo eta gainetikoak mahaira ateratzeko.

Orduak aurrera egin ahala, edanaren ondoriozko larriak kentzeko kanpora irtetzen zuten batez ere zaharrek.

Halakoren baten Txirrita ere kanporatu zen, baina ez ziren kargutu txiza

egiten barik prakak soltetan joango zelakotan.

Baina ez. Txirritak bazekien gaubeko hamarrak aldera tabernariaren alaba ohera joango zela eta broma bat egitea bururatu zitzaion. Hauxe. Etxea ondo ezagutzen zuenez, joan gortara, hartu astakumea, lotu estukin batekin lau hankak eta tabernako neskaren ohean sartu zuen. Gero besteak bezala tabernan sartu zen eta bertsotan jarraitu comosinó.

Efetibamente, gaueko hamarrak aldera tabernariak esan zion bere alabari:

—Zoaz ohera, ni neu geratuko naiz berantiar hauekin. Petrolio-argiaz egingo dizut argi ilunetan estropezuren bat izan ez dezazun.

Jazorikoak

—Ez aita, ez dut behar argirik, ilunetan ere buruz dakit oherako bidea.

Joan, joan zen neska ohera, baina logelara heldu eta ohean sartzen hasiz batera, ene! "nor dagoen baino ez da nire ohean" alaurika hasi zen eta tabernako jendartera itzuli odolak ur egiteko moduan. Horretara, Txirritak badiotso:

—Zer gertatzen duna ba neskato hain estu eta larri etortzeko?

—Zer gertatu diostazu? Ba gizon bat dagoela nire ohe barruan.

—Eta nolakoa da ba gizon hori?

—Lumatsua, oso lumatsua, besterik ezin esan dezaket.

Txirrita, barre-zantzoka hasi zen bere tripari eutsi ezinik eta neskatoari eskubitor bietatik oratuta badiotso:

—Ez hadi larritu, sosegatu hadi, hire ohekoa ez duna gizona eta.

—Nor den baino ez da han dagoen hori?

—Ba, hara, heure gortako astakumea duna, goazen ikustera.

Oraingoan itsua izan ezik, beste guztiak joan ziren logelara, baina petrolio-argi eta guzti eta, efetibamente, hantxe zegoen astakumea eta, tira, neskatoak ez zion txartzat hartu Txirritari ha astakeria.

Itsuak ikusi ezin zuen ezer ikusi, baina entzun dena, eta errukitu egin zen neskatxiarekin eta esan zion bere buruari:

—Itzultzen direnean nik neuk neurtuko diak hori Txirrita adarjotzaile hori, ikusiko dik horrek, tranpak argi irtengo zio!



Barre algaraka etorri ziren denak logelatik eta lehengoari ekin zioten. Halakoren baten itsuak hitza hartu eta badiotso Txirritari:

—Hi, Txirrita, hilakorik ez zegok, baina erronda bat postura egingo diat. Aitu: eskalea nauk eta ogerleko bakarra zeukat poltsikoan. Hik ekarri beste hamaika ogerleko eta neurearekin nahasi. Dozena horretatik baietz igarri neurea zein den!

—Ezetz! Txirritak.

—Baietz! itsuak.

Jarri zituzten hamabi ogerlekook mahai baten gainean. Txirritak berak nahastu eta ikutzen hasteko agindu zion itsuari.

Itsuak banan-banan hartzen zituen ogerlekoak eta bakoitzarekin aitearen bat egin eta musua eman.

Hamabiekin fetxoria berdina egin zuenean, itsuak bere ogerlekoa hartu zuen eskuetan esanaz:

—Aikomen, hauxe duk neurea!

—Txirripa bat izango zuan, —esan zion Txirritak sinestu ezinik.

—Txirriparik ez, —itsuak—, berriro egingo diat nahi baduk.

—Ba, bai, —Txirritak.

Itsuak egin zuen bigarren aproba eta igarri. Hirugarrena eta igarri. Horretara, denen harriduraren aurrean, badiotso Txirritak:


—Galdu diat. Sekula ez diat hartu honelako lotsaririk, baina nola igarri duan jakiterik bazeg19/11/04ok?

—Hobe ez mutil! Aitu. Nik ikusi ez baina mihia ondo zeukat eta hi astakumearen kontuetan ibili haizen bitartean, nik neure ogerlekoa alde batetik piperminaz eta bestetik tximinia zuloko keta edo kedarraz igurtzi diat eta, jakina, aitearen egin

Jazorikoak

eta gero musua emakeran mihi puntarekin ikutu egiten izan diat ogerleko bakoitza eta denetan igarri neureari, piperminaren min edo eta ketaren gazi-mingots astunagatik.

Astakumearen adarjotzeak karu irten omen zion Txirritari, baina hori goiti-beheiti ez zuen umore ona galdu eta bertso ugari eta ederrak utzi zizkigun. Bai horixe!





Indiako astodun kontrabandista

Indiako asto-arraza handia eta ona izan da beti, eta inguru-nazioak beti egon dira nondik lortuko horrelako astoa.

Behin batean, Indian, asto elia zeukan gizon batek. Oso ondo zaintzen zituen eta arraza hobetuz zihoan.

Noizbehinka, Pakistan aldera joaten zen asto gainean. Astoa ondo baino ere hobeto apaintzen zuen eta jantzi-jantzi eginda eramane beti.

India eta Pakistan arteko mugara heltzen zenean, mugazainak altoa botaten zion eta agirian ezer ez daramala ikustean aurrera egiten utzi.

Berriro Indiara itzultzen zenean, beste hainbeste. Mugazainak erregistratu egiten zuen eta ezin ezer aurkitu, bistan behintzat.

Horrela ibili zen luzaroan eta kontrabandista izenez eza-gutzen zuten, bazekitelako haren haronakoak ez zirela paseoan ibiltzeko bakarrik.

Urteak joan urteak etorri, zahartu egin zen astodun gizona eta baita mugazaina ere.

Egun batean, biak elkartu ziren, astoduna eta mugazaina, eta azkenengo honek esan zion sorbaldatik eskua botata:

—Hi, bazekiat kontrabandista izan haizena, baina, ahalak eginda ere, ezin izan diat argitu hire haronakoen benetako arrazoa. Orain jubilatuta egotera, ezin diat ezer egin eta esango al didak zer arraio trafikatzan ibili haizen?

—Astoak, mutil, astoak!

Jazorikoak

—Astoak? Zer diostak? Nola?

Ba, hara, Pakistanerantz, asto gazte eta onak eramaten izan dizkiat, eta Indiarantz, zaharrak eta txarrak ekarri, diru truke, jakina.





Bainoa-ko astoa

La Habana-ko ipar-mendebaldean dago Bainoa herrixka alaia eta hantxe zebilen, antza, jaube gabeko asto olgetari bat batetik bestera.

Ez zeukan etxerik, baina Bainoako jendeak jaten eta edaten ematen zion berarekin jolastuz. Dena dela, batzuk barre, burla eta abusatu ere egiten zuten astotxo horren burugabetasuna bitarteko.

Noizbehinka, astakirten batzuk sagardoa ere ematen zioten edateko eta mozkortu erazi, biribilketak ikusteko.

Beste batzuetan, astoari buztanetik lata hutsak eta gaine-tikoak lotzen zizkieten eta zirikatu herri guztia barreka jarriaz.

Urteak joan urteak etorri, famatu egin zen ha astotxoa, eta bere adarjotzaileen harridurarako, handik gerora Bainoako herria "Bainoako Astoa" izenez ezagutu izan da. Azkenean astoak irabazi.

Jazorikoak

Astoa kanpaiotsean Uriondon

Oraindino urte asko ez dela, Gabonzahar gaueko hamabietan, entzutea daukagunez kristau aurreko ohitura zahar bat ospatzen zen gure herrietan. Urte zaharra amaitu eta berria hasten zen unean, gazteak batez ere, inon diren astakeriak, burlazarrak eta adarjoteak egiten ibilten ziren gaueko ilunean, legetik kanpo omen zeudelako, antza.

Gabonzahar gau baten, han Zeberioko Uriondo auzunean, gazte batzuk elkartu isilean, hartu asto bat, kontuz-kontuz eramane eta eleizako kanpaitik behara dindilizka zegoen sokan utzi zuten lotuta. Horri gutxi eretxita, eleizportikuan bedarsikua ipini zioten, baina ez ondoan, arean urrunago baino.

Astoak, ikusi ez zuen egiten bedarsiku multzoa, baina barruntatu bai, eta bedar hori jan guran ahalak egiten zituen hurbildu eta jateko baina alperrik. Astoak atzera aurreretan etengabeko kanpaiotsa atera zuen eta Uriondoko auzune guztia buruko ileak ere arteztuta zegoen beste mundukoren batzuk agertu ote ziren pentsatuz. Adarjotzaile gazteok euren etxeetara joan ziren, baina isilik. Urrengo egunean, oilarrak jo eta egunak argitu zue-nean, auzonako ausartienak joan egin ziren eleizportikura eta han aurkitu zuten astoa neke-neke eginda, eta beste guztiak enteratu zirenean barreka hartu zuten gazteon burlazarra eta ondo hasi zuten urteberria. Dena dela, bati baino gehiagori kostatu egin zitzaion sustosartua kentzea, broma astun bat izan arren. Zer den gaztea izan eta zoro egotea, e!



Asto apaintzailea

Gorbeia inguruko herritxo batean, Astotxin izeneko gizon onkote bat bizi zen. Ofizio askotako gizona zen, baina, urteak joan urteak etorri, asto eskiladore edo apaintzaile bezala egin zen ezagun, beharbada besterik egon ere ez zegoelako.

Bilboko portuan karga-deskarga lanetan zebilela, antza, kinkaileruren bategandik lortu zuen astoak mutiltzeko haginadura bikoitzeko tresna, eta harrezkero herririk herri ibiltzen zen bere bizikleta eta korneta-adarra hartuta.

Era askotara apaintzen zituen astoak, baserritar bakoitzaren gustora. Exijenteenak andrazko bendejerak eta gizonezko azokariak izaten zituen, jakina, astoak ondo apainduta eta itxura onean eramatea gustatzen zitzaielako, jendeak zer esango ere!

Apaintzeko ezeze, astoak gaixotzen zirenean ere Astotxin petrikiloari deitzen zioten eta beti ideatzen zuen erremedioren bat, bateko San Juan goizeko inontzean batutako bedarren enplasturen bat, besteko zaintiratua edo beste edozer gauza.

Behin batean, dei baragarri bat hartu zuen. Hauxe: urli egunetan, Ugaoko tren geltokira joateko dozenerdi bat asto beltz mutiltzen.

Atoan plantatu zen Astotxin Ugaoko geltokian eta abemariak aurretxorako denak zeuzkan mutil-mutil eginda.

Eginbeharra amaitu zuenean, ene! zelaiko asto-lumak beltzak eta astoak urdin-nabarrak. Horretara badiotso ugazabari:

—Zer asto arraza dituk ba hauek?

—Ba, betikoak, —ugazabak.

Jazorikoak


—Betikoak? Ule beltza barrutik ere beltza izango duk, ez duk?

—Hara, Astotxin, sosegatu hadi. Hauek ez dituk asto beltzak, beltzituak baizik. Upo menditik ikatz txondorretako hondakinen erraustsak ekartzen dizkiat astoon bidez, gero Bilbora trenez eramán eta han lexiak edo erropa-garbikuziak egiteko, hik ikatz iduriak edo hautsak eragindako kolore beltza baino ez duk ikusi.

—Bueno, batera dela zein bestera dela, astook mutiltzen irentsi dudán hautsagatik eta ondorendo doministikuekatik zeozer gehiago kobratu beharko diat.

— Bai, Astotxin, bai, eutsoz diruok eta goazak astozain guztiokin kopautxo bat egin eta azunberdi sagardo edaten.

Azkenean denak pozik, astoak ere bai hazkura barik.





Astoa eta horma-uztaia

Lehenago, astoa eta gainetikoak erabiltzen zirenean garraio lanetan, etxe, errota, denda, lantegi eta abar guztietan zegoen hormari deutsala burdinazko horma-uztairen bat katea-ganadua lotzeko.

Anboto inguruko baserri batean, apal-apalik bizi zen hainbat seme-alabatako familia bat. Bat egiten zuten denek eta eztabaidak goiti beheiti ez zuen inork etxearen kontra egingo, ez horixe.

Ekina baragarria denez, urteak joan urteak etorri, baserria handitzen joan zen, eta labrantza tresna modernoagoekin ustiatzeaz gain, ganaduak ere ugarituz zihoazten, ehundaka ardiko artaldea eta ia beste hainbesteko eliaren jabe zirelarik.

Astoarekin hasi, baina urtekarrenean antzik ere ez, gainera propietario bihurtu zen ha hasierako familia apala. Etxe zaharrari deutsala, granja eder bat eraiki zuten, etxe berri eta handiagoa egitea pentsatu zuten.

Pentsatu eta egin. Gainera txaleta! Ospatu eta guztia egin zuten.

Hirugarren belaunaldikoek dena eginda ezagutu zuten, eta baserrian geratu gabe, estudioak ikasi zituzten, bateren bat Salamankaraino joanda.

Aitite-amamak zahartzen zihoazten bizitzaren legean, baina pozik baino ere pozago zeuden euren aldibateko baserri apala hain gora eginda ikustean.

Sarri esaten zion aitatak bere buruari ia ostekoak gauza izango ote ziren lehengoari denodu guztiaz eutsi eta aurrera egiteko.

Jazorikoak

Pentsamendu horrekin zebilela, ahozko aholkuei gutxi eretxita, joan egun baten Ereñoko harrobietara, marmol zati bat erosi, findu, hartu zintzel bat eta hauxe idatzi edo hobeto esanda zizelatu zuen:

Gogoan euki beti
gure arrastoa,
uztai hau izaten zen
lotzeko astoa.

Koplaz egindako mezua egin zuenean, Gabon arrasti baten, familia guztia elkartu eta hauxe egin zuen denen aurrean: atera etxe zaharreko horma-uztaia, sartu txalet berriko ate ondoko horman eta gainean bere mezudun marmola jarri zementoz lotuta. Aititak bere eginkizuna bete zuenean aikomen zer esan zien bereei: "Hasiak egina dirudi, eginak urregorria".

Harrezkero, belaunaldiak joan belaunaldiak etorri, etxean sartukeran denek irakurtzen dute euren aititaren mezu esanguratsua, apalak eta beharginak izaten jarraitzeko.



Esauindak

Astoa, zaldia eta mandoa

Bizitzaren joanean, astoak asto zereginetan eragoion eta zaldiak zaldiarenean. Baina kategoriaren arabera, gizakiak zaldia goragoan jarri zuen eta zaldun egin zen.

Astoak, harako Grezian zaldi kategorია hartu arren, asto jarraitu zuen. Baina hankak bakarrik ez, burua ere erabilirik, hauxe esan omen zion behinola zaldiari:

—Hi, zaldi, zergatik ez gaituk gurutzatzen zaldi-sendiak eta asta-sendiak batzuk astoago eta besteok zaldiago izateko?

—Ba, asto, ez diat holakorik burutik pasatu ere egin, baina ondo pentsatuz gero, egitea baino ez zegok.

Eta halaxe egin zuten. Zaldia astoarekin eta behorra astarrarekin gurutzatu ziren, eta hara han non agertu zen mandoa, arra zein emea.

Mandoa indartsu jaio zen, baina arrak emea ezin zuen ernaritu eta hortxe geratu zen eboluzioa zaldiaren eta astoaren biderdian. Harrezkero, gizakiak mandoa mando-beharretarako erabili izan du mandazainak bitarteko, astoaren eta zaldiaren onerako.



Astoa eta bere gaineko gazte zuziduna

Behinola, mutil gazte batek eginbehar misteriotso bat bete behar zuen. Hauxe: zuzia biztu eta urruneko gaztelu batera eramán amatatu barik, bertako neska politarekin ezkontzeko.

Bidea oso luzea zen eta zaldirik ez zeukanez, astorik onena hartu, zuzia isiotu eta bidean jarri zen.

Joan eta joan, halako batean beresi edo oihan handi baten sartu zen, eta baso hori zeharkatzen zebilela, atsotxo batek urten zion bidera eta:

—Eup! Zaitudan gazte hori. Su barik nago eta zure zuzi horretatik emango bazenit eskertuko nizuke. Ez dakizu zenbat baino gurago nukeen su hori zeozer erreta jan dezadan.

—Ez, andratxoa! Ezin dizut lagundu. Nik misio garrantzitsu bat daramat eta ez daukat huskerietan ibiltzeko astirik.

Hark bihotz gogorreko mutil gazteak aurrera egin zuen atsotxoa negarrez utzita. Baina barruak ez zion baketan uzten, eta mutil gazteak astoari sooo! esan, eaurt egin eta atzera joan zen atsotxoagana eta sua eskeini. Atsoak bihotzez eskertu zuen eta zahar on egin zedila esan.

Ha mutil gaztea ona egin ondoren pozez beterik zihoan oihanean zehar. Baina halakoren baten haize indartsu bat agertu zitzaion mehatzune batean eta zuzia amatatu. Ene orduan! Ha bai zela larrialdia eta desesperazioa!

Mutil gaztea lurra jota zegoen, zoruan ezarrita burua hankartean zuela negar baten.

Esaundak

Halako baten, burua jaso zuenean, astoa ikusi zuen etorritako bidetik joaten. Atzerik hara jarraitu zion eta atsotxoari sua eman zion lekura iritsi zenean:

—Ene! — esan zuen bere barrurako—, zuzia amatatu egin zait, baina lehengo bere sua atsotxoak dauka oraindino garra dariola. Eskatu egingo diot!

Bildurkilik eta lotsaz-lotsaz joan zen mutil gaztea atso-txoaren su ingurura eta badiotso:

—Parka, andratxoa, zuzia amatatu zait eta emango zenidake zure sutik, berrien berriz zuzia isiotu eta nire destinora hel nadin?

—Hobe ez, gazte! Hartu, zeurea duzu eta zoaz bake-bakean, on egiteak ez dakartsu kalterik eta.

Mutil gazteak atsotxoa eskertu zuen eta astoa ere bai, etxera bidea hartu eta pentsarazi ziolako.

Handik gerora, zuzi biztu eta guzti eilegatu zen ha mutil gaztea heldu beharreko gaztelura, eta agindutako eginbeharra bete zuenez, ezkondu egin zen bertako neska ederrarekin. Harrezkero, ongile eta bihotz zabalekoa izan zen bere bizitza guztian.





CHANG-HUO-LAO txinatarraren asto magikoa

Txina aldeko herritxo batean, CHANG-HUO-LAO jakintsua bizi zen. Jakintsua izateaz gain, beneragarri eta on-ona zen herritarrentzat.

Txina guztian zehar zebilen batetik bestera beti jakituria-
ren atzetik, eta haronakoak eraz egiteko asto bat zeukan. Baina
ez edozein modutako astoa. CHANG-HUO-LAOren astoa bizkorra
baino ere bizkorragoa zen, abiadura ikaragarrikoa eta santiamen
baten plantatzen zen ugazabak nahi zuen lekuan. Horrezaz gain,
CHANG-HUO-LAOren astoak bertute magikoak zituen, besteak
beste, hauxe: paper bat tolesten den bezala tolestu eta gero, be-
rrien berriz zabaltzeko ahalmena zeukan. Era honetara, CHANG-
HUO-LAOk astoa goiti-beheiti ez zeukan ezelako enbarazurik,
baina behar zuenerako laguntza ezin hobea bai.

Horrelaxe egin zen jakintsu, onbiderik onbide, erleak lore-
rik lore zurrupatzen duen lorautsarekin ezti on eta gozoa egiten
duen bezala.



Esaundak

Persiako asto irakurlea

Behinola, Persiako lurralde nagusian, Nasrudin zeritzan gizon trebe bat bizi zen eta beti zebilen bere asto maitearekin. Halan da ze, erregearen berberaren jauregira ere asto eta guzti sartzen zen.

Erregea kokoteraino zegoen, astodun horrekin lotsaria pasatzen zuelako, eta egun batean badiotso argudioz beterik:

—Hi, Nasrudin, gaurtik aurrera irakurtzen ez dakien inor-txo ere ez duk sartuko nire jauregian!

Nasrudinek atoan ulertu zion erregeari eta alde egin zuen jauregitik bere asto eta guzti, burumakur eta pentsakor.

Hurrengo hiru asteetan, Nasrudin bera bakarrik joan zen jauregiko eginbeharretara, baina laugarren astean berriro ere asto eta guzti. Horretara, erregeak badiotso oso haserre, odolak ur egiteko moduan:

—Nasrudin, ez nian esan irakurtzen ez dakienik nire begien bistara ekarri ez egiteko ala buruko garaunak sikatuta dauzkak?

—Bego isilik, errege jauna, nire astoak irakurtzen ikasi egin du eta —erantzun zion Nasrudinek—, ironiaz beterik.

—Hago isilik, Nasrudin, esan ere egitea holako astakeri-arik?

—Esan eta izan! —erantzun zion berbaltu barik Nasrudinek—, eta esan egingo diat gainera nola ikasi duen irakurtzen nire astoak.

—Ondo zegok. Egin ezak demostrazio hori kapaz bahaiz nire neure eta jauregiko guztien aurrean!



Nasrudinek jauregiko bibliotekako inkunable bat eskatu zuen. Hartu narruzko orridun liburu hori eta astoaren aurrean jarri zuen harrizko poial baten gainean.

Astoa hurreratu zen eta ene! bere mihiatz liburuaren orriak banan-banan pasatzen hasi zen Persiako hizkuntzaren norabidearen arabera. Azkenera heldu zenean, ikagarritzko asto-arrantza bat bota zuen.

Erregea eta gainetikoak ahozabalik eta mutututa geratu ziren, ikusitakoa sinestu ezinik.

Erregeak ez zuen onartu nahi fetxoria hori eta bere jauregiko aholkulariei kontsulta egin eta gero badiotso Nasrudin irribarretsuari:

—Hi, ikusi eta entzuna hor zegok, baina horren sekretoa argitu arte ez diat sinestuko.

—Begira beza berorrek, —erantzun zion Nasrudinek—, asto barik etorri naizen hiru asteotan, neure aurrekoengandiko narruzko libururik zaharrena jarri diot astoari aurrean, baina ez huts-hutsean, orrialde bakoitzaren atzean olo garauekin baizik.

Eta, jakina, astoak olo-garauak jan guraren jan guraz mihiarekin orriak pasatzen izan ditu eta azkenera heltzen izan zaidanean arrantzaka hasi gehiago gedarrez.


—Baina, Nasrudin kokorio, —esan zion erregeak—, liburuaren orriak pasatzea ez duk irakurtzen jakitea eta guxiago olo-garauen bila ibili baduk.

—Tira, errege jauna, nik neuk ezin demostratu dezaket nire astoak irakurtzen ikasi duen ala ez, baina berorrek ere ezin demostratu izango dit irakurtzen ez dakienik, ez gaudelako ez bata eta ez bestea astoaren garaunetan.

Esauñdak

Azkenean, elkar ulertu ezin zutenez, eta jauregiko jende guztia adi utzi ez egitearren, erregeak onartu egin zuen Nasrudin asto eta guzti jauregian sartzea.

Harrezkero, Persia luze-zabalean "asto irakurlea" izenez ezagutu zen Nasrudinen astoa. Egia edo gezurra, kontatu, behintzat, horixe egiten da!





Astoaren untzejoa eta kanpabuelakoak

Dimako Lamindaon ferratoki bat zegoen, Petralandako Landaren ondoko bidekurtzean. Ferratzailea entzute handikoa zenez, Arratiakoak ezeze haragokoak ere joaten zitzaizkion idi, behi, zaldi, mando eta inoiz asto eta guzti ferrak josteko.

Errotari batek astoa erabiltzen zuen bere errota-beharretarako. Alosoko astoa zen izan ere, irdartsua baina apatxetatik biguna.

Entzutea zeukanez, Lamindaoko ferrategira eramane zuen bere astoa ferrak josteko. Ferratzaileak, astoaren apatxak ikusi, ezpainak bihurtu eta esan zion:

—Hi, asto hau nondik erabili duk ba, apatxak hain mailuskatuta eukiteko?

—Ba, nondik erabiliko diat ba, bideak betean neure zereginetan!

—Tira ba, ahal dudana egingo zioat asto eder honi, gauzeztanduta gera ez dadin.

Ferratzaileak jarri zuen asto hori ferratokian hedeekein lotuta eta hasteko apatxak garbitu eta ertzetako altzi guztiak kendu. Gero, bere neurriko ferrak aurkitu eta josten hasi zitzaion, iltzez, jakina.

Atzeko hankako azkenengo ferra josten zegoela, zer? eta untzejoa! Ferratzaileak iltzea mailuaz joterakoan, iltzeak kanporantz barik barrurantz egin zion eta nerbioa ikutu, untzejoa egin.

Ene astoak! Min zorrotzaren ondorioz, botatzen du ostikada demas bat eta airean jaurtin erdi-josian zeukan ferra. Kontuak atera nolako ostikada botako zuen astoak, ze hark ferra hark Urkiolako kanpandorreko kanpabuelakoak jo eta zazpi orduan egon omen ziren kanpaiotsean.

Esaundak

Astoa eta "Mikeldi"

Bizkaiaren bihotzean, Durangon, Mikeldi ermita desagertuaren ondoan, harrizko eskultura handi bat agertu zen erdi-agirian XVII. Mendean, eta "MIKELDI" izenez ezagutzen dugu harrezkero.

Iurretako harrobietako area-harri baten egindako taila da, Burdin Arokoa gutxienez. Ordots edo beharbada zezen baten itxurakoa da bere hanka barruetan disko biribil bat daukala. Alde bata eguzkia dirudi, eta besteak, ilargia, Ama Lurrak bere bizibiderako sortu omen zituen alaba biak.

Aurkikuntza hau atoan zabaldu zen Durangon eta ingurumarietan, eta ospatzeko erakustaldi berezi bat egin zuten. Hauxe: hartu "Mikeldi" eskultura, egurrezko nar baten gainean jarri, astorik indartsuena narrari kateatik lotu eta etxerik etxe erakutsi.

Durangar guztiak etxe aurreetara urtenda zeuden txaloka eta zantzoka eta "Mikeldi" euren parean ikusten zutenean erreberentziak eta guztiak egiten zizkieten, alde batekoak eguzkiari eta besteak ilargiari.

Narraren aurretik tiraka zihoan astoak beretzat hartzen zituen erreberentziak, txalokak eta zantzoak; eta lehendik harro bazegoen asto indartsuena zelako, orain harroago durangarren inoiz ez bezalako harrera ikustean.


Durangoko herri osoari eta inguruetatik etorritako guztiei erakutsi eta gero, "Mikeldi" herriaren erdira eraman zuten eta monumentu bezala ipini etorkizunari adi.



Herri osoa bildu zen oboan-oboan "Mikeldi"ren inguruan eta asto harroa orduxean konturatu zen herria zeri adi zegoen, euren "Mikeldi"-ri, noski.

Burua aurreko hankartean sartuta eta belarriak zorutik narraz zituela aldendu zen astoa berriro harrokerietan ibilteko gogo handi barik.

Urteak joan urteak etorri, durangarrak "Mikeldi"ren kopia bat egin zuten Durango bertorako eta originala Bilboko Euskal Museo Historiko-Etnografikora eraman mundu guztiak ikusi eta gozatu ahal izateko. Hantxe daukagu ikusgai.



Esaundak

Asto parea elkar ikusi ezinean

Euskal Herriko herritxoetan ganadu-feriak egiteko ohitura handia egon da gaurko egunetararte.

Feria-egun batean, baserritar batek asto parea eraman zuen errematera saltzeko asmoz.

Abere eta jende elia bildu zen eta salerosketak bizi-bizian zeuden, batzuk begipisuan, beste batzuk bizipisuan, hirugarren batzuk gezur eta abarrotsean.

Gure astoduna ere han zegoen, eta halakoren baten abar-kamedian zebilen gizon harroputz bat hurreratu zitzaion eta:

—Hi, zelakoa duk asto pare hau eta zegan dauzkak biak?

—Ba, hara mutil, zegangoa konponduko diagu, baina beste kontuan egia esango diat, defekto bakarra zeukatek, ezin dutela elkar ikusi.

—Hori baino ez baduk, ez dik ardura. Baserri bi zeuzkat eta bata baterako eta bestea besterako izango dituk.

Egin zuten tratu hori, eta bata asto parearekin etxera eta bestea diru freskoarekin bazkaltzera.

Handik lasterrera asto-eroslea haserre baino ere haserreago joan zitzaion tabernara eta berbartu eta guzti esan:

—Hi, gezurra esan didak, hauek asto hauekitsuak dituk ba eta?

—Hortxe, kontuz, —erantzun zion serio-serio saltzaileak—, nik ez diat gezurrik esan, egia baino: "ezin dutela elkar ikusi" eta halaxe duk, ez duk?

—Ba, bai, baina nik bestera ulertu diat.

—Ba, egina eginda zegok, tratua tratua duk eta urrengoan zuhurrago ibili!



Mandazaina eta albokaria Parisen

Bizkai aldean, Arratiako esaera zahar batek diosku: "Arratiako zekorra, txikerra baia gogorra", baina Arratian zekorrak ezeze, beste ganadu on asko ere egon da eta euren artean aikomenzan esaterako, astar-behorrak eta zaldi-astoak gurutzatzetik sortutako mando gorriak mandazain trebeen agindupean.

Behinola, tabernako kontua antza, mandazain batek aitu zer entzun zion Zeanuriko "Arrati" ezizeneko albokari ospetsuari:

—Nire biriak lakoak euki eta nire moduan arnasa bueltatzen dakienik ezetz egon inon. Nik Pariseko kalerik luzeena igaro baietz, mandoz, alboka-hotsean geratu ere egin barik, jota, porru eta martxa joten!

—Zer diok? —erantzun zion harrituta mandazainak. Horixe fetxoria hori, ikustearren zeozer baino gehiago emango nikek.

—Eginda zegok! Zer jokatuko diagu? —albokariak.

—Ba, neure ofiziora joanaz, bakoitzaren etxaguntzako mando gorri ederrena.

Esan eta egin. Eguna notatu, hartu mando gorri bana eta Bitoriara joan ziren lehenengo, han galdetu eta Pariseko bidea hartzeko. A zelako pare!

Ekina baragarria denez, halakoren baten heldu ziren Parisera eta galdetu zein zen kalerik luzeena.

Pariseko "Campos Eliseos" kalea aukeratu zuten azkenean mando gorrien apustua egiteko.

Apustu egunean, tertzioz erantatu ziren eta oilarraren kuku-rrukuaz batera plantatu zitzaizkigun kale luze eta zabal horren


Esaundak

hasieran. Han zetozten biak bietara, bata alboka-hotsean aurretik eta bestea atzerik hara begira noiz arnasa faltako "Arrati"-ri.

Albokariak comosinó egiten zuen aurrera bat ere ikara barik, eta ia-ia "Campos Eliseos" kaletzarra igarotzeko gutxi geratzen zitzaizkiela, mandazainak alborik hara aurreak hartu, alborantz einean zutundu mando gainean eta albokariaren adar-rean eskua jarri zuen haizearen pasoa zarratuz. Horretara, albokariak ezin bueltatu izan zuen arnasa eta ahaleginean konortea galdu eta mandotik behera jausi zen apustua galduz.

Harrezkeroko, arratiar albokariak (Leon Bilbao eta Maurizia Aldaiturriaga bikoteak, esaterako) kopla batez gogoratzen izan digute jasoera hau "Arrati"-k Pariseko kale luzeenetik zehar zihoala edukiko zuen pentsamendua adibinatuz:

Goizean Parisen, gauean Parisen,
Parisko kalearen luzea,
auxe kale au pasauta baneu
atzeko mandoa neurea.





Astoa kiroletan

Hainbat eta hainbat behar-ekintza kirol bihurtu zaizkigu gure munduko historiaren joan-etorrian.

Astoaren beharra ere bilakaera horretan sartzen dugu, eta hiritartzen doan mundu honetan asto-kirolak hortxe ditugu, bizi-bizirik.

Kiroletariko bat edo beste aipatzearren, asto-probak eta asto-karrerak egingo ditugu.

Asto-probek, idi-proba ospetsuen gerizpe izan direnez, beharbada ez dute hainbesteko arrakasta izan, baina egiten diren lekuetan interes handiz jarraitzen dira.

Asto-karrerak zabalago dabilta. Hainbat herri txiki, handi eta hiritartutan antolatzen dira lasterketok, eta ikusgarria izaten da eurak ikusteko batzen den adin guztietako jendedia.

Kirolez aparte, barre egiteko aproposak izaten dira asto-karrerok nahiz eta bat baino gehiago "Mando baten gañean Domingo Kanpaña" abestiarekin gogoratu, batez ere asto-gainekoa azpikoa baino astoagoa denean.

Esaundak

Asto bazkaria zeruan

Lurreko historiaren Alfa eta Omega elkartu zirenean, era batera edo bestera, zeruan jarraitu zuen arimen bizitzak.

Lucio, Apuleyoren Urrezko Astoa ere han zegoen, Isis jainkosak asto itxura kenduta zeruko zoriontasunean.

Egun batean, asto-bazkari bat egitea gogoratu zitzaion eta antolatzen hasi zen leku, janari eta protokolo guztiak.

Dena prestatu zuenean, zantzo antzeko arrantza estentoreo bat bota zuen eta asto elia berehala hurreratu zitzaion arrantzotsean.

Hantxe zeuden historiako asto guztiak Noeren kutxakotik hasi eta azkenengorarteak.

Bakoitza aurkezterakoan apaltasuna zen nagusi, baina asto batzuk ez zuten behar aurkezpenik, ospetsu egin bait ziren lurrean zergatik hargatik. Hara han, besteak beste, Balahamen astoa, Sancho Panzarena, Platero, Txirritaren astakumea, Mikeldi eraman zuena, otsoak errudun bezala zigortu zuena, Indiako aitona-iloben asto alferrik galdua, Txinako paperezko asto magikoa, fabuletakoa, mitoetakoa eta abar guztien artean nola ez Jesukristo Jerusalemara eraman zuena Erramu Egunean.

Ikusgarria zen benetan ha ospakizuna. Beste zerutar guztiak ere adi-adi zeuden astoen nobleziaren aurrean, eta batek baino gehiagok esaten zion bere buruari: berriro jaioko bagina, hobeto esango genioke gure astoari, bai, lagun izan dogun gure geure astoari.



Astoa mandoari "belarri-handi" gedarrez

Gorbeia inguruko baserritar bat bere astoarekin eta mandoarekin joan zen lurlandu batera artoa ereiteko asmoz. Arto zorroa astoari jarri zion bizkarrean eta mandoa erramaletik zerman gero narra-beharrak egiteko.

Baserritar horrek solo erdi ubidera erein zuen, eta beste erdia, artagarauak txirran botata artaberde bezala jateko.

Astoak inbidiaz ikusten zuen mandoa bere solo-beharretan eta ereitza bukatu, narraz pasatu zein hazia agirian gera ez dadin eta beharlekutik erretiratu zirenean badiotso:

—Hi mando, hi ez haiz ni baino gehiago gero!

—Zer ba? —erantzun zion mandoak—.

—Ba, hara, hik baino lehenago nik neuk egiten nizkian horiek solo-behar horiek eta hik bestean egin ere gainera.

—Tirauk ba, asto, ez hadi harrotu, indarge bat baino ez haiz eta!

—Ni indargea? Ba hi "belarri-handia" bai " belarri-handia".

Mandoak ez zuen mandokeriarik egin eta burlazar edo benetan, iterantzun gisa esan omen zion:

—Bai, asto, bai, zozoak beleari ipurdi beltz esan zion bezala, zelan diostak niri "belarri-handi", ez al duk hik heure burua ikusten, belarritzar pareta eta guzti?

Hantxe egin omen zituzten bakeak bien artean asto-mandook eta alkar ondo konpondu aurrerantzean.

Astoa fabuletan

Astoaren astotasuna eta otsoaren astakeria

Euskal Herria oihan hutsa zen garaian ezbehar handi bat sortu zen animalien artean. Eltxarra zabaldu zen animalietan, baina inork ez zekien ez nondik ez zelan. Baina, batean bestean, animalia asko tragau egiten zen eta oihaneko aberetza larritu egin zen, eta zelan gainera?

Otsoak azeriari deitu zion, eta garratz ere garratz esan:

—Hi, hau ez duk bizimodua. Gure bizia arriskuan zegoak eta jakin egin behar diagu nor den errudun. Horretarako, adarra jo lau haizeetara eta datozela animalia guztiak Santimamiñe inguruko zelaietara.

Esan eta egin. Udaberriko kukuotsarekin batera elkartu ziren animalioak, mota bakoitzeko bat. Gure astoa ere han zen, nola ez ba?

Santimamiñeko kobazulo aurreko haitzean ezarri zen epai-mahaia, otsoa buru eta azeri-azkunarrak lagun zituela.

Harrokeria eta handikeria ez zen falta. Otsoa hasi zen bere otsokeriak harrokeriaz beterik kontatzen eta justifikatzen. Gero azeria, hurrengo azkunarra eta gaisetiko guztiak.

Astoa isil-isilik zegoen. Huskeriak kontatzeokotan hobe isilik egon eta haxe egin zuen. Baina otsoak ez zeukan ez ahaztuteko behinola astoak berari hortzetan emandako ostikada eta badiotso:

—Hi, asto trasto, hik ez daukak ezer aitortu eta damutzeko ala?

—Ez ba!

—Ezetz? Eta harako ha niri neuri emandako ostikada zer?



—Bai, hik heuk esan duk, baina hi ni jaten etorri hintzen eta nik ostikadaz defenditu baino ez nian egin neure burua!

—Ikusten duzue ikusi, —eragoion otsoak—, aitortu digu astoak nori? eta niri neuri egindakoa. Astoa da erruduna eta zigortu egin behar dugu, zigortu, bai zigortu!

Otsoa aurretik zela, bihotz gogorreko animalia guztiak hasi ziren makilak hartu eta astoa jotzen mandaitu arte. Asto errukarriaren buru bihotzetan ez zegoen besterik hauxe baino: "Munduan beti alperrik galdu itsasoko euria, eguneko ilargia eta pobrearen arrazoia".



Astoa txakur-ametsetan

Norgehiagoka eta harrokerietan hasten dena sarri sartzen da barruregi norberea ez den terrenoko mugarrietan eta horixe gertatu zitzaion gure asto ameslariari.

Arrantzalari ona ere ona zen. Sekula ere ez zuen utziko erantzun barik beste astoen arrantza bat eta beralakorik ez zegoela uste zuen.

Egun batean, idiak asto harroari lotsari bat emotearren, orro estentoreo bat boteaz, txapelketa baterako deia zabaldu zuen animalia artean. Animalia guztiak hurreratu ziren bakoitzak zekiena eta ahal zuena egiteko asmoz.

Hasi zen txapelketa eta idi epailea jakinaren gainean zegoenez, asto harro ameslaria izendatu zuen txapeldun.

Astoa barruak hartu ezinik zegoen pozaren pozez eta behin irabaziz gero, arrantzaka ez ezeze denean zela onena uste zuen.

Idia serio plantak egin arren barrutik barre baten zegoen astoaren itsutasunak ikustean, eta badiotso beste abere guztien aurrean:

—Hi, asto, eutso txapela, hilakorik ez zegok!

Astoak jarri zuen txapela eta han zegoen lehen baino harroago bere belarri biak txapel aldamenetatik gora zituela.

Animalia guztien txaloak amaitu zirenean, idiak, berriro ere hitza hartuz, esan zuen:

—Nor da arrantzaririk onena?

—Neu, neu, neu! —erantzun zuen astoak.

—Eta abererik handiena?



—Neu, neu, neu! —astoak.

—Eta nor da agindu eta egina baino kokorio, artaburu, harroputz eta zorri-kaparraz beteagoa?

—Ni neu, ni neu, ni neu! —ostera ere astoak.

Idiagandik hasita, denak hasi ziren astoari barreka eta han utzi zuten bakarrik bere txakur-ametsetan.



Asto pentsalariak

Behin batean, baserritar zeken batek asto pare a zuen bere baserriko beharretarako. Astooi beharra eta gosea ematen zien ugazaba horrek eta batzuetan adarra jotzen zien gainera burlazar ekinaz.

Arrasti batean, behar gura dena egin eta gero, ugazaba zekenak asto biak lotu zituen idunetik erramal labur batekin eta bedarsiku moltzo bi ipini gorta bazter banatan.

Asto bakoitzak bere bedarsiku multzora joateko indarrak eta iztenak egiten zituen, baina ezin. Han zebiltzan egin ahalak egiten eta ugazaba barre algaraka.

Halako batean, ugazabak lehertu ez besteko barreak egin ondoren alde egin zuen asto pare a gortan utzita.

Horretara astook, euren nekaldia eta ezina ikusirik, etzan egin ziren gogaituta. Baina goseak zuhurtu egiten duela eta, badiotso asto bata besteari:

—Hi, era honetara ezin diagu bedarsikurik jan, ez hik ez nik. Zergatik ez diagu lehenengo hire multzoa biok batera jaten eta gero nirea?

—Arrazoia daukak, asto, elkarri deusala joango gaituk!

Esan eta egin. Zutundu eta biak bietara joan ziren eta bedarsikuz bete-bete egin gainera. Gero, oster a ere etzan egin ziren eta loak hartu.

Handik gerora, ugazaba zekenak bere sendikoak ekarri zituen gortara ha fetxoria ikusteko eta ene! Astoak lo eta bedarsikuen errasturik ere ez! Han lotu zen ugazaba zekena denen aurrean lotsatuta.



Indiako aitona-ilobak astoarekin

Aitona bat eta bere iloba herririk herri zebiltzan asto batekin Indian zehar. Herri baten sartu ziren biak bietara, oinez tipitapa, astoa amarran zutela euren atzerik hara.

Hango herrikoak hori ikusi zutenean barreka eta burlaka hasi zitzaizkien esanez:

—Begira, begira nolako artaburuak diren! Astoa eduki eta biak oinez, kokoloak halakoak! Zer ikusi behar dugun baino ez da!

Egoera horren aurrean, aitona asto gainean plantatu zen eta aurrera egin iloba asto aurrean zela.

Beste herri batera heldu zirenean, hango batzuk haserre ere haserre jarri ziren eta ia-ia alaurika hasi esaten:

—Hau bai dela feturea, agurea asto gainean eta umetxo gixajo errukarria oinez neke-neke eginda.

Herri haretatik urten zutenean, agurea astotik bajatu eta umea jarri zuen asto gainean.

Hurrengo herrira sartu zirenean eta hangoek ha eszena ikusi, kritika gogorrek egiten hasi zitzaizkien esanez:

—Hau da izatekoa! Umea asto gainean eta ia-ia ibilpidea galduta daukan agure zaharra oinez. Ez dago eskubiderik!

Gauzak horrela, aitona eta iloba biak jarri ziren asto gainean eta han zihozten berbaz-berbaz hurrengo herriraino.

Baina hurrengo herri horretara iritsiz batera, hango base-ritarrak gora-goraka hasi ziren elkar hartuta:

Astoa fabuletan

—Aditu, aditu horiek biok! Lotsa zer den ere ez dakite. Nola eraman dezakete asto koitadua biak gainean direla? Ikusteko ere holakorik!

Aitona-ilobok, kritika-hots horren aurrean zera egin zuten: hartu astoa eta bien artean lepoan eraman.

Haragoko herria jo zutenean, inon diren barreak eta algarak entzuten hasi ziren, bateko burutik jota daudela, besteko zoratuta, batek badaki zer entzun behar izan zuten!

Egoera horretan zeudela, astoa lurrera bota zuten euren lepoetatik eta gureztalako ezbeharrean astoa amildegira erori zitzaien eta malograturik bertan tragau.

Azkenean zer? Ba, inoren gustoa egin ezinik asto gabe geratu!





Astoaren jakitura

Baserritar batek karobi handi eta sakon bat zeukan bere etxe ondoan. Urtero egiten zuen kare bizia eta karobi-barruak garbitzen zebilen.

Gau hartan, ezbeharrez antza, etxeko asto zaharra soltu egon, eta iluntasunean karobira barrura erori zen. Ezin zuen urten eta negar-arrantzak egiten hasi zen. Ugazabak lorik ere ez zuen egin asto-arrantzetara, eta hurrengo goizean, tertzioz jagi eta asto bila hasi zen astin-astin egiteko asmoz.

Karobian barruan zegoela ikusi zuenean, baserritarrak gogor ere gogor egin zion asto zaharrari esanaz:

—Ez duk ezertarako ere balio, gatzetarako ere ez didak egiten eta oraintxe bai, oraintxe egin dik hireak, ikusiko duk!

Asto zaharrak lehen baino negar-arrantza handiagoak egiten zituen. Ugazaba bien bitartean auzo-laguntza bila joan zen. Hainbat gizon indartsu elkartu zen karobi inguruan euren pala, aitzur eta guzti.

Astoaren ugazabaren aginduetara, denak hasi ziren lurra botaten karobiko astoaren gainera, enterratu eta bertan tragetako.

Hasi ziren, ganoso gainera, eta ugazabak noizbehinka begirada bat botaten zion astoari eta oño! astoa gainera erortzen zitzaion lurra astindu eta geroago eta gorago ikusten zuen. Lurra botago eta gorago.

Baserritarra eta laguntzaileak karobia lurrez noiz beteko zeudela, hark asto zaharrak barre-arrantza handi bat bota karobi betearen aho-ahon eta alde egin zuen beste ez dakit nora eta ez omen zen gehiago agertu.

Astoa fabuletan

Baserritar bihozgogorrekoa, lotsatuta ezeze, asto eta karobi barik geratu zen eta auzokoekin zorrean. "Zerjana zeresana baino lehenago faltako da" dio esaerak eta halaxe gertatu omen zen. Astoaren jakituriak irabazi!





Txina aldeko Guizhou-ko astoa

Txinaren hegoaldean dago Guizhou probintzia eta hango antzinako literato baten ustez, Guizhou-n ez zegoen astorik eta gizonen bati, kapritxoz jakina, asto bat eramatea gogoratu zitzaion. Pentsatu eta barkuz eraman zuen eraman ere asto ezikusi hori.

Hasieran mira egin zioten guizhoutarrek, baina handik gerora ez zion astoari inork kasurik egiten eta han zebilen asto bakar hori mendirik mendi egun guztian, mizka-mizka eginda behar barik.

Halako batean, tigre batek ikusi zuen astoa eta ez ezaguna zitzaionez bildurtuta alde egin zion.

Beste egun baten ere hurreratu zitzaion tigrea eta hain handi iruditzen zitzaion astoak arrantza ikaragarri bat bota zue-nean, lehenngoan baino bildursartu handiagoaz alde egin zuen.

Baina denporak dena argitzen duenez, tigreak igarri egin zion astoari eta burlazar hasi zitzaion. Astoak orduan ostikada bat bota zion, baina besterik ez. Horretara tigrea, bera baino gutxiago zela ikustean, astoari gainetu zitzaion eta bere hortz eta erpa zorrotzekin erraz-erraz dominatu zuen. "Itxurak horixe dakar atzean".

Astoa eta otsoa

Asto bat, beharrik ez zegoenean, jakina, baserri baten ondoko beresi ertzean uzten zuen bere ugazabak lizarrondo bati lotuta gerora begira, udaberrirantz perretxikoak lortzeko ona zela eta astoak lorrindutako zorua.

Horrelako egun batean, handik beresi barrutik otso endemoniño bat hurreratu zitzaion eta esan haginadura artetik mihiari batera-bestera eragoiolarik:

—Astoa, hireak egin dik! Hortik goiko basoetatik ez zeukat niretzat besteko jakirik eta hirekin alosoko tripakada egingo diat.

Astoari zerua lurrera etorri zitzaon, eta hil edo biziko momentuetan gorputz-arimak biak batera ere labur geratzen direnez, buruko garaunak estutuz egia koloreko gezurrotsean erantzun zion:

—Ba, beste erremediorik ez bazegok jan nazak, baina tripakada handiagoa egin gura baduk hasi hadi jaten atzeko partetik, bien bitartean nik bedarra jateari ekingo zioat eta lodiago egingo nauk!

— Bale, bale, eginda zegok! —erantzun zion gosez itsututa malezia gabeko otsoak.

Astoa lizarrondo barrenean burua eta landa garbirantz atzea zuela plantatu zen luberriaren aurgora-aurbetherak aprobetxatuz.

Otsoa ahotik adurra dariola joan zen astoaren atzekaldera, eta izter-mamietara salto eginaz batera, astoak jaso oinberdinka atzeko hanka biak eta aho ahoan jo zuen ahal den guztian otso madarikatua eta kikiribuelbaka bota hango beheko erreka bazterreko trokaraino.



Asto emendatu ezina

Negua zen eta han zegoen astoa gorta bazterrean, zeri-nakio, luze eritzita, bedar sikua eta agotza jaten mizkatuta. Horretara, ia-ia gogait eginda esan zion bere buruari:

"Sikeran udaberria etorriko balitz, kukua eta gainetiko txoriak entzun, bedar guri-guria jan, lore usaina arnastu eta abar luze horrekin alegrantzia handia hartuko nuke".

Iritsi zen udaberria, baina intera bateko ha astoaren poza iluntzen hasi zen bere barruan. Udaberriarekin batera, beharrak ugaritu ziren baserrian eta, jakina, astoari ez zioten baketan ere uzten. Bateko bedarretan, besteko satsetan, haragoko landare-tan, astoaren beharlekua gatx eta latz bihurtu zen zeruan eguzki ederra eta lurrean natura berbiztua ikusgarri egon arren.

Aspertu egin zen udaberriaz jana baino beharra handiagoa egin zitzaiolako eta arean hobeto biziko zelakoan, badio berekautan:

"Udaberria lehenbailehen joango balitzait eta uda etorri, askoz hobeto biziko nintzateke hainbeste astobehar egin gabe".

Udaberria joan eta San Juanak heldu zirenean, poztu egin zen gure astoa eta txakur-amesak egiten hasi.

Udako bero-beroan, bedar-sikatze, gari-jote, akarreo eta gainetikoak jasan behar izan zituenean, astoak ezin zuen gehiago eta arrantza mingotsak bota arren inork ez zion kasurik egiten, behar gehiago agindu baino.

Ha bai zela egoera larria, beharra eta beroa. Gauiluntze batean izerdiak berez sikatu, mandauliak eta ezpaturdinak uxatzea lortu zuenean, arrantza-negarrak bota zituen eta esan bere buruari:

Astoa fabuletan

"Udagoiena baletor, freskura apur bat gehiago hartu eta behar gutxiago egiteko! Honela biziterik ez dago hainbeste behar egin eta ondo eginaren pagua ate ostean palua!"

Udazkena ere heldu zitzaion asto emendatu ezinari eta aro honetako lanak, txarka ere, udan baino hobeto zeramatzan. Baina, eguraldi onak txarra dakerren moduan edo egunak gaua, gure astoari baserri ingurutik haragoko beste behar gogor batzuk agertu zitzaizkion: ida-ebagiteak, egurgintzak eta ikatz-egosteak. Ai ene! akabua astoarentzat. Hobeto bizi gura eta geroago eta txarrago. Zenbat garraio astun, zenbat bidezidor, zenbat barda eta makilakada, zenbat arre-arre eta gainontzekoak bizi izan zituen astoak berak baino ez daki.

Ezin zuen gehiago eta egoera larri eta errukarri horretan neguari deika hasi zen bihotzerik harako negar-arrantzekin:

—Hator negua, hator. Bururik ez daukanak hankak erabili behar! Neguaroan emendatu ezinik egotearren, urtarorik urtaro ibili nauk hobeto bizi gurean baina alperrik. Negua nahi diat berriro, hator negua, hator!

Etorri zen negua eta orduxean sosegatu zen gure astoa eta Olentzeroren oparia balitz bezala pozarren geratu zen kortatxi ondoko okeluan, epel-epeletan, inguruko eliarekin batera, sosegatuta eta bedarsikua eta agotza jaten inguruko elia bezala, konformitatean.



Astoa, txakurra, katua eta oilarra

Hor ez dakit ba non ere, hainbaten izango zen, astoren bat omen zegoen deslai, adinon, eta ba muna bazterrik muna bazter zebilen antza, ezertarako gauza ez dela.

Ibilian-ibilian baten bat beti topetan da eta, ba, asto horrek ere txakur galgu bat topatu ei zuen eta:

—Zer egiten duk hemen fetura horretan, alborantz einean, jausi eginik?

—Zer egingo diat ba, behin gauzeztanduz gero ez nautek gura eta andafuerazko jantzia eman zidatek, hau duk izatekoa, ondo eginaren pagua ate ostean palua!

—Tiauk mutil, ni neu ere han por han nabilek eta hator, zelanbeist bizitza aterako diagu eta.

Eta joan ziren biak bietara, itxura koitaduan, baina tira, belea beltzago ez dela egingo eta, aurrera eragoioen.

Arrasti erdirantz, han pagadui batetako txorbel artean etzun egin ziren biak eta astoak astinaldi batzuk emon ere bai.

Zerinakio daudela, norantz hartu ez dakitela, katu bat ikusi zuten pago baten adapoan miau baten, eta badinotso astoak:

—Hi, zer egiten duna hor miauka, katarraren bati deika ala?

—Bai zera!, sagurik ere ez diat harrapetan bai, eta suela emon zidatek etxean, edo hobeto esanda, gosea ematen izan zidatek eta urten egin behar mundurik aramaio biziko banauk!

Hator, etorri adi geugaz, miau-gedarroi itxita, eta hau txakur hau goiti beiti izango haiz, ze zahartzaroan norbere buruaren jabe izatea ere ez duk gutxi, eta ez diat pentsetan pleitu-intzigurik eukiko dozuenik bata bestearen artean.

Astoa fabuletan

Alkar hartuta joan ziren joan be, hirurak hiruretara nondik gura eta handixek. Bata bestean arrimuan, begiak ere alimatu egin zitzaizkien.

Ailegatu ziren propietario baten etxe ondora ere eta, ba, han, oilar mardo eta gangartsu bat ikusi zuten oilategian ere kabitan ez dela, artega ere artega, bateko kukurrakua, besteko alanbradurea pasadu gurako hegazkada, zoratu ez bestean omen zegoen oilar hori, eta horretara badinotso astoak:

—Zer jaungoiko pasetan zaizu ba oilarra hain artega egoteko?

—Zer pasatu dinostazue? Ba etzi zortzi Sandoniak dira, hemeko jaiak, eta dagoeneko lapiko eta kazulaotsa barruntetan dut eta hemen itxaronago eta txarrago nago ze nire atzena holango kasularen baten izango da, ai ene! biripoak ere irakin egiten dit. Erduzie laguntan!

Orduan astoak ostikada bidiru boteaz harrate bat egin zion oilategiko alanbradurari, eta han eroan zuten euren hankartean ostenduta, estarian, oilar hori.

Eta gero ba han ez dakit ba non ere, dena ere kontua izango da baina, gau beranduan argia ikusten ei zuten eta txokatuta zeuden seguru. Arrimadu ziren eta oilarrak sorots egin ei zien arbolaren baten genetik eta ene!, lapurrak!

Orduan, paretan dira astoa azpian, txakurra ganean, katua ganeragoan eta oilarra ganerengo, eta hasten dira bata arrantzaka, bestea ahausika, bestea miauka eta oilarra kukurrukuotsean, laster eskapatu zuten urrean lapurrok orpoetan har barik.

Eta gero zer pasatu zen? Ba oilarra sueteko bentanan paratu zen, katua supazterrean, txakurra tranpako ateari deut-sala eta astoa kortako ate ostean.




Lapurrok luze eretxita zeuden, eta halangoren baten euretako bat arrimatu ei zen ilunetan eta supazterrera heldu zenean ilenti edo txingarraren bat delakotan botaten dio eskua eta katuak erpaka egin ei zion. Gizon hori karran hasi zen eta suetetik kortara bitartean txakurrak ahausika eta azkenean kortako ate ostean astoak oinberdinka ostikada endemoniño bat, eta oraindino oilarrak kukurruku egiten ei zion sueteko bentana barrutik.

Lapur hori joan zen lagunokana eta zer? eta, badinotse:

—Ai enetxua! Suetean, supazterrean sorgin batek txatxamarka egin zidak, tranpako ate ostean gizon batek kutxilloa sartu, kortako ate ostean monstuoak estakeaz jo eta oraindino sueteko kristalezko bentanatik jueza entzuten izan diat esaten: "Ekarri hona, ekarri hona, neuk dominatuko diat eta".

Lapurrak betiko alde egin zuten, eta gure asto, txakur, katu eta oilarra luzaroan bizi izan ziren herrikoen esker onean.



Astoa eta liburuak

Herriko eskolak bakarrik zeuden garaian, goimailako ikasketak egiteko modua internaduetara joatea zen eta edozein etxetan egoten zen abadegai edo fraidegairen bat.

Estudianteak ezagun izaten ziren, eta era bateko edo beste karrerak amaitu ondoren, dotore ibiltzen ziren.

Behin, horrelako etxe baten, astoa agertu omen zen zeloti, eta estudiantea bere bizkarrean zeraman egun batean badiotso bere buruari:

—Nik neuk ere liburuak hartu eta ikasi egin behar diat, hau gainekoa bestekoa izateko.

Esan eta egin. Astoak bazekien non gordetzen zituzten erabilitako liburuak, eta egun batean, joan dolare ondoko kaxa zaharrera eta liburuak jaten hasi zen horrela ikasiko zuelakoan.

Liburu betekada egin zuenean, txakur amesak egiten hasi zen eta gorta-ganadu guztiak desafiatu zituen esanez:

—Aizue, estudiante egin nauk eta edozein galderari erantzuteko gauza nauk. Sinesten ez badidazue, deitu goiko estudianteari eta has dadila edozein galdera egiten. Baietz ondo erantzun.

Halaxe egin zuten. Deitu eta etorri ere egin zen estudiantea gortara eta lehenengo galdera egin zionean astoari: grrrrrrrrrrrr! asto-arrantza ikaragarri batez erantzun omen zuen asto kokorioak beste abere guztiengan barre-zantzoak eraginez.

Jakina, astoa zuhurragoa izan balitz zer hau jakin beharko zuen: sitsak edo eta zedenak libururik handiena jan arren ere, ez duela ezer ikasten.



Astoa eta idia

Idia, garraiorako ia derrigorrezkoa zen garai batean, oso lanpeturik zebilen bakarrean zein bikotean. Ugazabak etxerako ezeze kanpo-beharrak egiteko ere erabiltzen zuen.

Egoera horretan ikusita, behin baten badiotso astoak erdi burlazar erdi ironiaz adarra jo nahian:

—Ai, idi errukarria! Hik ez daukak bat ere maleziarik. Beti habil ugazabari amen-amen egiten. Aitik. Nik egia esateko egin egiten dizkiat behar batzuk, baina sarritan ezin edo gaixo-plantak egiten dizkiat eta orduan etxagunak hi heu erabiltzen hau nire orde. Zuhurtu hadi eta bizi, malbako hori halako hori.

Idiak aintzakotzat hartu zizkion aholkuak asto lepozuriari eta aurrerantzen tekla guztiak gutxi zituen ugazabaren aginduen aurrean.

Ugazabak ezin zituenez bere beharrak bertanbera utzi, idia-
ren orde z astoa jarri zuen beharren eta gogor gainera.

Asto alperrontziari tranpak agi urten zion eta zenbat bider esan ote zion bere buruari: "banengo nengoenean", baina berandu.

Astoa literaturan

Astoa euskal atsotitzetan

Euskal atsotitzak aipatzen direnean, derrigor jo behar dugu Gotzon Garateren "Atsotitzak, refranes, proverbs, proverbial" bilduma liburura. Handixek hartu ditut ASTOARI buruzko batzuk. Bilduman askoz gehiago dituzu.

Astotitza zer den, G. Garatek berak diosku bere liburuan. Honelaxe: "Herriak eguneroko bizimodutik atera eta molde tinkoetan erabiltzen dituen, belaunez belaun igarotzen diren eta zerbait irakasten duten esaera gogoetatsu laburrak".

Asto asko, lasto asko.

Asto handiak gerizpe handia.

Asto joan eta mando etorri.

Alperrik da eztan astoa makilatzea.

Bakoitzak bere astoari arre.

Basta ondo ipini arren, astoa asto.

Gose danean, astoak arrantza.

Zelako astoa, halako astakumea.

Astoa bide gidari onena.

Astoa ez mailega otsoari.

Astoa urdindu, gizona soildu (ilea galdu).

Astoak ardoa ekarri eta ura edan.

Astoak astoa igurtzi.

Astoak bere burua lauda.

Astoak eta periodikuak ipinten deusiena ekarri.

Astoaren legea ostikadea.

Astoak mandoari "belarri handi".

Astoka irabazi eta, mandoka gastau.

Astoa asto, baina beti berea egin.

G. GARATE
Atsotitzak, refranes, proverbs, proverbial, 2003



“Sancho Panza”ren asto nabarra

Mundu mailan, gazteleraz idatzi den eleberririk handienetakoa Cervantes-en «El Quijote» izan da.

Bertako pertsonai nagusi biak, "Don Quijote eta Sancho Panza" dira; lehenengoa, idealista eta ameslaria, eta bigarrena, positibista eta praktikoa, baina nahiko fatalista.

Don Quijote Rocinante izeneko zaldiarekin zebilen eta Sancho Panza asko maite zuen izen gabeko asto nabarrarekin.

Eleberri guztian zehar, ia Sancho Panza bera besteko ospetsua izan da bere astoa, Don Quijoteri atzerik hara jarraitzeko.

Eleberri magistral honetan sarritan agertzen zaigu aipaturiko asto hori eta, besteak beste, pasarte esanguratsu hau gogoratuko dugu: "Sanchori astoa ostu baina gero berreskuratu".

Gau batean, Sierra Morenako artelazduiaren sakonetara heldu ziren gaua egiteko. Aitzarte ezkutu bat aukeratu zuten eta, afari iski bat egin ondoren, loak hartu zituen gauaren iluntasunean.

Halabeharrez, Gines de Pasamonte gezurti eta lapur ospetsua ere haitzarte horretara joan zen estalpe bila, "la Santa Hermandad" bere atzetik zebilelako.

Don Quijote eta Sancho Panza lo arrantzaka zeuden, eta Gines horrek bere intziguak eraginda esan zion bere buruari:

—Don Quijoteren zaldi Rocinante itxura eskasekoa duk eta bertanbera utziko diat, baina Sancho Panzaren astoa ondo etorriko zaidak neure beharrianetarako eta ostu egin behar zioat.

Pentsatu eta egin. Hartu asto nabar hori eta artelatzik artelatatz joan zen urrunera gaueko ilargipean.

Egunak argitu zuenean eta Sancho Panza iratzartu, basakatuak berak baino ere saltu handiagoa bota zuen astoa bere ondoan ikusi ez zuenean. Don Quijote ere iratzartu egin zuen bere astoaren alauri eta lamentuekin:

—Oh neure bihotzeko semea, neure etxean jaioa, neure seme-alaben jostailua, neure emaztearen oparia, neure auzokoen inbidia, neure zama astunen arindura eta nire neure burua sostengatzeko soldataren erdia, egunean irabazten izan ditudan hogeita sei marabediekin neure mantenimenduari aurre egiten izan diodalako! Ai ene! Eta orain zer?

Don Quijotek Sancho Panza hain errukarri ikustean gertatutakoa gertatu ondoren, lasaitu egin zuen esanaz:

—Pazientzia eduki ezazu. Hara, aldaketa zedula bat prometitzen dizut neure etxean ditudan bost astakumetatik hiru zeuretzat izateko.

Sancho Panza lasaitu egin zen eta negarranpuluak sikatu eta gero eskerrak eman zizkion Don Quijoteri sustosartu eta guztizko berba dardaratsuekin.

Barauskarri batzuk janez barausi zutenean, Sierra Morenatik zehar joan ziren, Don Quijote zaldi gainean eta Sancho Panza oinez bere atzean.

Egurdarte erdian, artelazduiko mehatzune batera heldu zirenean, gizon bat begiztatu zuten asto gainean. Sancho Panzak astotara zeukan begi zorrotzak bitarteko, bere astoa ezagutu zuen lehenengo eta gero gainean zihoan Gines de Pasamonte



lapurra, ijito soinekoz jantzita etorri arren. Birritan pentsatu gabe badiotso odolak ur egiteko moduan:

—Ah, Gines lapurra! Utz ezak nire astoa, neure bizia, neure atsedena, neure oparia! Joan eta aldendu hadi lapur hori halako hori!


Gines de Pasamonte lapurrak ez zuen behar birritan esaterik eta salto bat eginaz alde egin zuen orpoetan har barik.

Sancho Panzak orduan, bere asto maitea besarkatu, laz-tandu, bizkarrean azkura gozoak egin eta esan zion:

—Nola zaude neure asto nabar maitea, neure onbidea eta bidelaguna?

Astoak es zion erantzuten, baina pozik ikusten zen gorputzari astinaldi batzuk emanaz eta buztanari eragoiola.

Astoa berrezkuratuz gero aurrera egin zuten, eta Don Quijotek astoa galdutzak zeukaneko promesari eutsi eta hiru astakume erregalatu zizkion. Sancho Panzak bihotz-bihotzez eskertu zuen Don Quijote.



“Platero” asto ospetsua

Nobel saria eskuratu zuen Huelvatar Juan Ramon Jimenez poetak, besteak beste, "Platero y yo" prosa poetikan lan bikaina idatzi zuen 1917an eta mundu guztian zabaldu zen bere ospea.

Liburuan zehar, fantasia eta errealismoa batzen dira pertsonai nagusi bien artean: gizona eta astoa. Astoaren izena "Platero".

Liburu ederra eta polita da, eta edertasunen galburutik galgarau bat aukeratuko dugu: "Platero laguntza lane-tan ugazabaren aginduz".

Behinola, neskato bat joan zen bere asto-gurditxo eta guzti laranjadui batera bedarra ebagiten. Han zebilen laranjondorik laranjondo eta akordatzakoan lainotu eta euria egiteari eman zion denborak.

Neskatoa bedarrak gurditxora botatzen hasi zen eta bide batez jateko moduko laranja heldu batzuk ere hartu zituen erramarik hara eta gurditxoko bedar gainean ipini.

Etixerako bidea hartu zuten neskatoak eta astotxoak, baina euriak zorua lupeztu zuenez, gurdi-txirrinkak lurrean sakonegi sartzen zitzaizkien eta ezin atera asto indargeak.


Neskatoak gurdi-txirrinkari oratu eta ahalak egiten zituen astotxoari laguntzeko, baina alperrik. Negarrez zegoen neskatxia ezintasunak jota.

Horretara, "Platero"-ren ugazaba errukitu egin zen eta Platero laztanduz indarka zebilen astotxoaren aurrera eraman,



hedeak lotu eta aurridi lanak egiten jarri zuen. Orduan bai, danen arte lortu zuten neskatoaren gurdi-txirrinkak lupetzatik atera eta harri-bidean jartzea.

Neskatoak ez zekien nola eskertu ha mesedea eta biho-tzeko samurtasunez, hartu bedar gaineko laranja ederren biak eta eman egin zizkion Plateroren ugazabari. Honek, abegi onez hartu zizkion laranja heldu biak, eta beretzat gorde beharrean, bata neskatoaren astotxoari eman zion pozteko, eta bestea, bere Platerori laguntza eskertzeko.



Urrezko astoa

Idazle ospetsu askorentzat eredugarri izan den eleberri bat idatzi zuen Apuleyo izeneko afrikarrak II. mendean. Originala latinez dago "Asinus aureus" izenburupean. Gaia ez omen da originala. Antza denez, Lucio de Patrás idazle grekoaren ipuinean oinarritu zen, nahiz eta gero Apuleyok maisutasunez osatu.

Eleberria lehenengo pertsonan dago.

Corintoko Lucio izeneko merkatari bat dabil herririk herri eta Tesaliara heltzen denean metamorfosis edo itxuraldaketa bat gertatzen zaio, hots, asto bihurtzen da. Nola? Ba hara: Lucio, ostatu batean, andra-sorgin bat ezagutzen du, eta gozameneko bizitza bat eramango zuela adieraziz, pozima bat eman zion txori itxura hartzeko. Hartu zuen pozima edo sorgin-edabe hori, okerrekoa antza, eta ene! txori itxura hartu beharrean asto bihurtu zen, baina giza-arima galdu gabe.

Berriro pertsona itxura hartzeko baldintza bat bete behar zuen. Hauxe: larrosak jan.

Behin astoraz gero, eleberri pikareska bat balitz bezala, bide-lapur, merkatari, soldadu, sasi-apaiz, esklabo eta abarren zerbitzuan ibili zen era guztietako kalamitateak jasaten. Larrosak aurkitu aurkitzen zituen, baina jaten joaten zenean beti gertatzen zitzaion zeozer eta lehenean jarraitu. Horrela ibili zen luzaroan, sufrimendu zein esfortzuzko senperrak bizitzen, desesperatuta, eta gauiluntze batean bere ugazabagandik aldendu eta Senekras izeneko herriaren itsaso ertzera hurreratu zen.



Lucio “astoa” ilargiari erreguka

Itsasora begira zegoela loak hartu zuen Lucio gauaren iluntasunean. Baina halako batean, gaueko lehenengo loaldian zegoela, ikaratuta esnatu zen.

Itsasora begiratu eta ilargi bete-betea ikusi zuen, eta jainko handi horrek botere bereziak zituelakoan, honela hitz egin zion:

"Oi, zeruko erregina!

Naiz Zeres zarela, uzten ama sortzailea, zure alaba aurkitzeagatik poztu zinenean, ezkurrez elikatzeo ohitura zaharra desagertarazi zenuena —piztien mantenimendua da eta hori— eta gizadiari janari gozoagoa erakutsi zeniona, eta orain Eleusiko zelai emankorrak lantzen dituzuna.


Naiz zeruetako Venus zarela, Maitasuna sorturik unibertsoaren lehen denboretan kontrako sexuak elkartu zenituena, eta, giza enda etengabeko birsortzearen bidez betirakotu ondoren, uhinez inguratutako Pafos saildutegian beneratzen zaituztena.

Naiz Feboren arreba zarela, emakumeei haurgintzan lagundu eta haien oinazeak arintzen dituen erremedioak eskainirik, herri ugariak jaioarazi dituzuna, eta orain Efesoko zure tenplo ospetsuan gurtzen zaituztena.

Naiz Proserpina ikaragarria zarela, gauez alauri beltzak egiten dituzun hiru aurpegiko jainkosa, itzal gaiztoen erasoak galarazten dituzuna, lurpeko espetxeak itxirik zaintzen dituzuna, zeuri sagaratutako baso anitzetan harona zabiltzana, eta hainbat erritoren bidez alde jar zaitezkeena. Oi jainkosa, zure argi emeaz harresi guztiak argitzen dituzun hori, zure errainu hezeen bidez hazi ernalkorrak elikatzen dituzuna, eta zure noragabean

Astoa literaturan

argitasun epelak eskaintzen dituzuna; zeuri otoitz egiteko itxura, zein erritua, zein izena, bata zein bestea izanik ere: lagun ieza dazazu nire fortuna larrietan, emaiozu indarra nire fortuna ahulduari, okerrik gogorrenak irentsi eta gero, emaidazu atsedena eta bakea. Aski dut oinazetik, aski arriskutik. Urrundu nigandik lauhandakako itxura madarikatu hau, eraman nazazu berrien berriz nire atzekoen aurrera, egizu berriro garai bateko Lucio ha izan nadin. Eta jainko irainduren bat atzerik hara badabilkit haserre bizian, utzi behintzat hiltzen, bizitzen uzten ez bazait".





Ilargia Lucio “astoa”ri erantzuten

Itsasoa eta zerua bat eginik hara han non agertu zitzaion ilargi beteare bere distira guztian eta esan bihozberaturik zegoen Luciori:

"Hementxe naukazu zeure ondoan, Lucio, zure otoitzek beraturik, ni, Naturaren ama, osagai guztien jabea, mende ororen hasiera, jainkozko danen elkarketa eta bilduma, Maneen erregina, zerukoaren artean lehenengoa, jainkosen eredu aldagabea naizen hau; neuk agintzen diet neure gogoaren arabera zeruan bizi direnei, itsasoko haizeska laguntzaileei eta inpernuetako isiltasun sakonei eta bakartiei; mundu guztiak gurtzen du nire jainkotasun bakar eta zatiezina, itxura askoz, era askotako erritoz eta hamaika izenez agertzen dena: frigiarrak, munduko lehen gizakiek, jainkosen ama deitzen didate, Pesimonteko jainkosa; jatorrizko atenastarrak, Minerva Zekropia; uhinez bustiriko txipretarrak, Pafos-eko Venus; kretatarrek, gezi eramaileak, Diana Diktina; hiru hizkuntzatan mintzo diren siziliarrek, Proserpina Estigia; antzinako Eleusiko biztanleak, Zeres Aktea; batzuek Juno deitzen didate; beste batzuek, Bellona; hauek, Hekate, haiek, Rhamnusia; ekialdetik irtetean, jainko Eguzkiaren errainu jaioberriek jo eta ilunabarrean bere azken dirdaiekin argitzen dituen haiek, bi Etiopiatako herriek eta beren antzinako zientziagatik boteretsu diren egiptoarrek, neure errito berezien bidez gurtzen naute eta Isis erregina deitzen didate neure benetako izenez.

Zeure ondoan nago, zure zoritxarrek bihozberaturik; zeure alboan nago, aldeko eta mesederako; utzi alde batera zure negar hori, amaiera eman zure aieneari, urrundu zugandik tristura;

argitzen dabil, nire gogoari esker zure salbazioa ekarriko duen eguna; adi, ba, arretarik arduratsuenaz, agintzen noakizun bete-beharrei:

Betidaniko debozio batek nire sena eman dio gaur gauean jaioko den egunari, eta hor, neguko ekaitzak baretu, eta itsaso haserretuaren uhinak arindu eta gero, itsaso hori itsasontziz zeharkatzeko moduan jartzen denean, neure apaizek, egin berria den untzi bat nire esku utzirik, itsasketaren lehen urratsak eskeintzen dizkidate. Zuk jai horren zain egon behar duzu inolako kezkarik gabe, eta, bestalde, inolako pentsakizun profano barik.

Horrela, nik jakinaren gainean jarri eta gero, apaizak, prozesioan doala, larrosaz beteko koro bat eramango du eskuineko eskuan bere sistroiari deusala. Zoaz, ba, jende artean aurrerantz eta bil zaitez gogoz, nire onberatasunarekin fidaturik, atzetik datozkidanekin. Apaizarengandik hurbil zaudenean, hari eskuan muin egitera zoazelakoa egin, larrosak hartu, jan eta ken ezazu soinetik asto madarikatu horren larrua, gorrotagarri zaidalako aspalditik. Ez izan nik agindutakotik zeozer gatx gertatuko zaizun bildurrik: zukanatu naizen une horretantxe, hor ari natzaiolako neure apaizari ametsetan zer egin behar duen agintzen. Nire esanera, zure aurrean irekiko da jarraitzaile jendetza estua, eta otoitzeko agerpen alaitsuaren eta nire jaiaren ikuskizun pozgarrien erdian, ez duzu inor ikaratuko orain daukazun itxura gaizto horrekin; inork ez dizu txartzat hartuko bapatean itxura aldatzea, ezta salatuko ere horregatik.

Hala ere —gogora ezazu gauza guztien gainetik— gorde ezazu zeure bihotzaren barru-barruan grabaturik, neuri eskeini didazula zure hemendik aurrerako bizitza, zure egunen amaierara



arte, zure azken hasperenera arte; legezkoa da geratzen zaizun bizia eskaintzea niri jainkosa honi, neuri esker berreskuratuko baituzu zeure lekua gizakien artean.

Hori eginez gero, zoriontsu eta aintzaz beterik biziko zara nire babespean, eta lur honetako zure bizitzaren bidea egin eta gero inpernuetara jaistean, hantxe ere, lurpeko hemisferio hartan ere aurkituko nauzu, Akeronteko ilunpetan distiraka eta Estigiako egoitza sakonen erregetzan, orain hemen ikusten banauzu ere. "Campos Eliseos"-neko biztanle egiten zarenean ere, etengabeiko omenaldiak eskeiniko dizkidazu jainkosa babesle natzaizulako.

Eta zure hitzez hitzeko obedientziak, nire zerbitzura ari-tzeak eta zure zintzotasun orbaingabe eta etengabeak nire jainkozko babesaren duin egiten bazaitu, orduan ikusiko duzu neu naizela zure bizitza, mugak baino harago luza dezakeen jainkosa bakarra".

Lucio "astoak" Isis jainkosak esandakoa bete zuen eta berrien berriz gizon itxura berreskuratzeaz gain zoriontsu bizi izan zen zahar on egin artean.

Psique eta Cupido

Apuleyoren "Urrezko Astoa" eleberri guztian zehar, Lucio "Astoa"ren bizikerak kontatzean, patetismo, barregarritasuna eta satirarekin batera historia txikiak ere kontatzen dira. Horrezaz gainera, Apuleyok mundu erromantikoa eta mitikoa ere eskeintzen digu, batez ere Cupido eta Psique maiteminduen pasarte zoragarrian. Aikomen mito horren laburpena:

"Psique printzesa bat zen. Berarekin batera hiru ahizpa zituen, baina ez bera besteko politak.

Hiru ahizpak ezkonduz zihoazen baina Psique ez. Psique-ren edertasunak uxatu egiten zituen iterantzunak bitarteko hurre-ratzen zitzaizkion ezkongai guztiak.

Orakuloak bultzatuta, Psiquereren gurasoak haitz bati lotuta utzi zuten, munstro batek bereganatzeko asmoz.

Trantze horretan, Psique haizeak eraman zuen airean, loak hartu zuen eta esnatzean palazio eder batean aurkitu zuen bere burua, orakuloak aipatu zion senarraren presentzia nabaritu zuelarik.

Hantxe bizi zen denboraldi batean. Egunez, bakarrik zegoen, eta gaeuz, senarra joaten zitzaion, baina ezin ikusi izaten zuen, sentitu bai ostera.

Batera zeuden gau batean, Psiquek bere sendia ikusten joateko baimena eskatu zion. Baietzaz gero, joan ere egin zen eta kontatu bere egoera. Horretara, hiru ahizpek, aholkatu ezeze konbentzitu egin zuten senarra ikusteko, lotan zegoela, jakina, lanpara bat isiotuz.



Esan eta egin. Psiquek egun horretako gau berean, senarra lo-arrantzaka barruntatu zuenean, jagi isil-isilik zein senarra eragi eta lanpara isiotu zuen.

Behin isiotuz gero, ohebururantz bideratu zuen lanpara-argia, eta bere edertasun guztian Cupido berbera zela ikustean, dardarotsean hasi zen eta orio tanta bero bat erori zitzaion Cupidori eta iratzartu.

Ondorioz, Cupidok bizialargun utzi zuen, eta Psique harona ibili zen bideak betean.

Noraezean ibilteaz gain, Venus zeloz beterik zeukan eta ez zion baketan ere uzten. Horretara, Cupidok berrien berriz bereganatu zuen.

Harrezkero, Jupiter handiaren oniritziaz betiko ezkondu ziren Cupido eta Psique".

Hiztegia

a

abadegaia: abade ikasten dabilena, seminarista.

abarka-mediak: oinetakoak, gomazko abarkak eta ardi-lanazko mediak.

abarrotsa: zarata.

abegia: harrera, txera.

abemariak: kristau aroko iluntzetako eleiz-ermitetako kanpaiotsa.

adapoa: arboletako, betez ere inausi eta gero sortzen den lakatza, laztasuna.

adinon: ezer egin barik egotea.

aditu: begiratu, ulertu.

afrontua: ekaitza, sufrimentua, "rato txarra", larrialdia.

ahotza: gari-lasto trillatua.

ahozpez: ahoa behera dela, tripaz behera.

aidatu: aipatu, airera atera.

aieneak: lamentuak.

aiko: hona hemen.

aikomen: hona hemen (singularra).

aikomenzan: hona hemen (plurala).

aitu: aditu, entzun, begiratu.

akabua: azkena.

akarreoa: garraioa, edozein ekarri-eroan egitea (idea, garia, bedarra etab.).

akordatzakoan: akordu barik, uste ez dela, ustekabeen.

alauria: ahots-zarata, garrasi, oihu handi eta luzea.

alfa: hasiera.

aloso: dezente, ugari.

altzi: birbixa, apur bat; dariolako haritxo.

amarran: animalia bat katearekin, erramalarekin, sokarekin edo beste estukin batekin lotuta.

amatatu: itzali.

amen-amen egin: baietz esan.

amildegia: troka, barranku, prezipizio, abismo.

andafuerazko jantzia: (esaera) kanpora bota edo kasurik egin ez egitea.

arean: apur bat, pizka bat, zertxobait.

arrasti: arratsalde.

arrastoa: tradizioa, hagea, ohitura.

arratea/harratea: kobazulokoa zein arantza-hesi edo harrizko baten egingako zuloa.

arrimuan: ondoan, laguntasunean.

artaburu: lelo, kokorio jatorriz, artoaren burua.

arteak hartu: lasaitu, baretu.

artega: urduri, larri, estu.
artelatza: alkornokea.
astakirtena: brutoa, indarkerietan dabilena.
astarra: asto arra.
astazaina: astoak zaintzen dituen.
astin-astin egin: jo-jo egin, zirikatu.
astoaldia: batazbesteko astoaren bizi-adina.
astobeharrak: astoak egin ahal dituen lanak.
astoko: astotxo.
atoan: momentuan, arin, berehala.
atsotitza: errefraua, esaera.
atzerik hara: atzetik.
aurbehera: aldapa behera, aldats behera.
aurgora: aldats gora, aldapa gora.
aurridia: (b)uztartutako idi bikoteari beste bikote bat jarri aurrean laguntzeko.
azunberdia: azunbre erdia, hots, litro bat (azunbreak litro bi).

b

baragarria: 1) barre egitekoa. 2) konstantea (esaera: ekina baragarria da, ezina baragarriagoa).
barausi: baraua apurtu, gaur gosaldtu, armozatu.

barauskarriak: baraua apurtzeko edo gosaltzeko jakiak.

barda: arbola-errama punta adar txikiagoekin.

barruntatu: entzun, asmatu, sumatu.

begipisuan: ganaduen pisua begiz kalkulatu salerosketetan.

behargina: langilea.

beharlekua: lana, zeregina, ekintza; lantokia.

beharren: lanean.

behorra: zaldi emea.

beinke: "bien que" gazt.

belea beltzago ez egin: (esaera) gauzak txarrago ezin joan.

berbartua/berbaltua: tartamutua.

berbaz: hizketan.

berekautan: berekitan, bere barrurako.

beren beregi: espreski, propio, hartarakoxe, atantxe.

beresia: baso berez-ernea, oihan txikia.

beretter: monagiloa.

bertsikuloa: Bibliako pasartetxo zenbakitua.

bideak betean: beti bidean batetik bestera.

bidezidor: oinezko bide estua.

bildurkilik: bildurrak hil eginik, bildur handiagaz.

bildursartua: lehenagotiko beldur kendu ezina.

birbixa: altzia, apurra.

bizialarguna: ezkondu eta gero batak edo besteak bakarrik utzi duena.

bizipisuan: ganadua bizirik pisatu, kanalean barik, sal-erosketan.

burlazar: adarra jotzen.

C

comosino: normal-normal; ezer gertatu ez balitz bezala.

d

damorroa: ganaduen haserre-urrumak.

dariola: jausten, erortzen.

dei-barrua: deituz gero entzuteko lekua.

dei-barruan: deitzerakoan, entzun eta erantzuteko eremua.

demasa: handia, asko.

denodua: indarra, kemena, ugaritasuna.

deslai: abandonatuta, bertanbera utzita.

deutsala: erantsita, ondo ondoan, pegatuta.

diakronikoki: historian zehar.

dindilizka: eskegita, goitik behera jausten, dariola.

dolarea: txakolin-ardo edo sagardoa egiteko tresneriadun tokia.

doministikua: gazt. estornudo.

-dui: -di, -ti, (mahasdui, mahasti, pagadui...).

duna: dun(a).

e

eaurt egin: buelta eman, haranzkotik honantz.

egurdartea: eguerdi aurrea, goiz osoa.

ei: omen.

einik: -einean, -t(z)eko zorian, beharrean.

elia: ganadu taldea (basabehiak, zaldiak, mandoak), jende asko, gauza ugari.

eltxarra: euliengandiko ganaduen gaixotasuna.

emendatu: bete, asetu.

enda: arraza.

endemoniñoa: handia, oso handia.

enplastua: gaixotasunak osatzeko egiten den pasta antzerakoa.

eragi: jagi erazi.

eragon: ekin, jardun.

erantatu: mogitu, espabilatu, astindu, bizkortu.

erdu: zatoz.

erduzie: erdu (plurala, zuek).

ergoien: herriaren goiko aldea.

eriko: titare, larruzkoa zein metalezkoa.

ernaldia: sabeleko enbarazua

ernaritu: ume berria sortu, enbarazatu.

erramarik hara: erramatik bertatik.

errautsa: zeozer erre eta gero geratzen den hautsa.

errematera: erregateoko azkeneko preziorik onenera.

errola: zensoa.

eskubitorra: eskuturra, eskumuturra.

estaria: estalia, leku ezkutua.

estentoreoa: handia, ikaragarria (Estentor grekoaren abotsa berrogeita hamar gizonena batera baino handiagoa omen zen).

estukina: zeozer estuteko bedar, gari, mimen edo kordel, erramal, soka.

etxaguna: etxeko jabea, propietarioa.

eupada: deia, dei egitea eup! esanaz.

eutso: har ezak (hitanoz, bizkaieraz).

ezgauza: ohizkoa ez dena, gutxi ikusia.

ezikusia: ikusi ez dena, ezezaguna.

ezlekua: (deslekua) ohizkoa ez den lekua, apartekoa.

ezpadurdina: gaztelerazko "tábano".

f

ferrak: herradurak.

fetura: ganora, itxura, patxada.

frakak soltau: kaka egiten joatea (eufemismoa).

g

gaineko: a zer nolako!

gainetiko: gainontzeko.

gainetu: gainera joan, atakatu, eraso egin.

galburua: gariburua.

galgaraua: gari garaua.

gangartsua: gangar handikoa.

garbatu: damutu.

garbikuzia: garbiketa, orokorrean.

gatzetarako egin: eguneko janaria irabazi.

gauzeztandu: balio ezean geratu.

gogaitu: aspertu, aburritu.

goiti beheiti: gora behera.

gureztala: nahi ez dela, gura ez dela, nahi gabe.

h

haginadura: ahoko haginak; izara, mantel eta abarren punta-ertzetako bordadua.

Hammurabi: Egiptoko antzinako kodigu zaharra.

han por han: antzean, egoera berdintsuan.

harako: behinolako.

haronakoa: hara eta honako joan-etorria.

harratea: pasoa, zuloa.

harresi: harri hesia.

hazdui: haitz askoko tokia.

hazkura: pikorra, hazka egiteko gogoa, hatzamorrua.

hede: uhalezko zinta buztarriak, bridak eta abar lotzeko.

hesialdia: egurrezko hesiaren iraupena.

horma-uztaia: horman sartutako ziriko uztaia animaliak lotzeko.

i

ibilpidea: oinez ibiltzeko ahalmena, kapaz izatea.

ideatu: asmatu, aurkitu.

iduna: sama.

iduria: zeozer erre ondorengo hauts birrinak.

ilinti/ ilentia: surten punta batetik erretzen dagoen egur luzanga.

indarga: indar barik, indar gutxiz.

inontza: ihintza.

intera: garaia, denbora, sasoi, tertzio.

interan: garaian, denporan.

intzigua: gogo bizia, grina, desira.

isiotu: biztu (sua, argia zein alimua).

iski: apur bat, gauza arin bat, pixka bat.

iterantzuna: alusioa, ziria.

iterantzunka: tentaka ibili, alusioak egiten egon.

itzulimurdika: atzera aurrera, bueltaka.

iztenak egin: ahalegin handiak egin, ahalak egin, aha-lekoak.

j

jakia: jatekoa.

jendedia: jende handia, asko.

k

kargu egin: aditu, begiratu, zaindu, jagon.

kargutu: kargua hartu, aditu, ohartu.

karobia: kare-harria berotu eta kare-bizia egiteko zulo biribil sakonak.

karran: karraderan, arineketan, korrikan.

keta/ketea: kedarra, tximinia barruan sortzen diren harri-antzeko multzo ketuak. Esaera: "ketea baino gaziago dago" = oso gazi, gaziaren gaziaz jan ez egiteko moduan. Keta edo ketearen gustua dela eta, lehenago, behesuan larazetik eskegita egosten ziren esne edo eta abarretara, sarritan tximinia barruko keta edo kedarra zatiak jausten ziren eta arin aterata ere hark utzitako gustu mingotsastuna atoaan igartzen zen, probatu dutenen esateetarik.

kikiribuelta: burua hanketan dela buelta egitea (gazt. voltereta).

kinkailerua: edozer txutxeria saltzen ibiltzen dena.

kokorio: lelo, malbako, enbeleko, artaburu, ganora-bako.

konortea: sena, zentzuna.

kortatxia: korta barruan txarriaren txarri-kortea.

L

lainabera: behelaino.

lepozuria: alperra, nagia, lanari fit egiten diona.

lexia: surteko hauts eta guztizko antzinako erropakolada edo garbitzea.

lorautsa: polena.

lorrindu: lurgaina zapaldu eta arakatu, ganaduak batez ere.

lotsaria: lotsa handia.

luberria: lehenengoz lantzen den soloa edo landa.

lupetza: basatza.

m

mailuskatu: golpeak hartu, asko igurtzi, kastigatu, estropeatu.

malbakoa: malezia gabekoa.

malogratu: alferrik galdu, lardaskatu.

mandaitu: handitu.

mandaulia: euli mota bat, ganadu kiratsera etortzen dena (mando-euli).

mandazaina: mandoak zaintzen dituen; astakirtena; kankailoa.

marabedia: antzinako txanpon bat.

mardo: lodi, sendo, gizen.

mehatzunea: baso edo antzerako zelai hutsa eta garbia.

mira: txera, kasua, harrera.

mizkatuta: enkapritxatuta.

mugarria: mugak markatzeko jartzen den testigu eta guztizko harria edo antzerakoa.

muna: soloko ertza edo linderoa.

mundurik aramaio: (esaera) mundurik zehar, hortik zehar, bideak betean ibiltea.

mutildu: ilea edo lanea ebagi labur-labur.

n

nabarra: grisa.

narra: egurrezko trineo antzekoa; ohol edo egur gurutzatutakoz eginiko tresna.

narraz: arrastaka.

negar baten: negar eta negar geratu gabe.

negarranpulusa: negar-malkoa.

notatu: apuntatu, nonbratu.

O

oboan-oboan: inguratuz-inguratuz; bueltan-bueltan; ingurumarian.

odol malauria: zauri zoldu bateko odola, zoltzairiakakoa.

odolak ur egin: (esaera) haserre amorratua, disgustu ikaragarria.

ogerlekoa: lehengo bost pezetako txanpona, hogei errealekoa.

oinberdinka: oin biak batera dirala saltoka.

omega: azkena.

oratu: agarratu, heldu.

ordotsa: txerri arra.

orpoetan har barik: arin, bizkor-bizkor, abantean, abiadan.

P

petrikiloa: kuranderua.

petrolio-argia: elektrizitate aurreko argi egiteko tresna erabili bat.

poiala: jatorriz, lat. "podium". Gazt. "poyo". Euskeraz, zedarrri, zutabe-oinarri edo eserleku eta mahai bezala ere erabiltzeko harri landua.

prakak soltau: kaka egiten joatea (eufemismoa).

S

sandoniak: San Antolinak.

santiamen: denpora gutxian, arin, berehala.

satsa: antzinako abonua naturala solo-landetarako, etab.

seguru: antza, dirudienez.
sikeran: gutxienez.
sistroia: Egipto zaharreko musika tresna erabili bat.
sitsa: zedena, egurra zulatuz jaten duena.
sorots egin: bigilatu, zelatatu, sorotsi.
sosegatu: lasaitu, kalmatu.
suela eman: kanpora bota.
suetea: sukaldea.
sustosartua: aurreko sustoen eragina kendu barik

t

tekla: aitzakia, allegoa.
tertzio: garai, sasoi, goiz, ordu.
tragatu: animalia bat berez hil. Jateko ez den pizti bat norbaitek hil.
tranpak argi urten: (esaera) oker egina argitu.
tranpako atea: kortara bajatzeko barruko eskilaretako atea.
trasto: okerra, gaiztoa, geldi egon ezinekoa.
txakurraldia: bataz besteko txakurraren adina.
txakur-amesa: iratzarririk ametsetan.
txatzamarka: atzazalak edo azkazalak haragian sartu igurtziaz.

txingarrak: egurra erre ahala sortzen diren zati goriak.

txirran: bueltaka-bueltaka, bilinbolan, airean zabal bota (ur-txorroa, hazia, harritxoak, frutuak, gozokiak, dirua, boloak, etab.).

txirrinka: gurpila.

txokatu: extrañatu, harritu.

txorbela: zuhaitz adartxo bat orri eta guzti ganaduei euli eta abarrak uxatzeko.

txorigorriak: maldizioak.

U

uholde: uriola.

untzejoa: ganaduei ferrak iltzez josterakoan nerbioa ikutu eta min egitea.

urdinabarra: urdina eta grisa.

urlia: fulano.

urruma: pertsonen edo batez ere ganaduen marru, baurre edo orro antzekoa.

urteagarrean: urte bat barru, urtera.

urtekarrean: urte batzuk barru, urteetara.

ustiapena: explotaziñoa.

uztaia: burdinazko aroa, arandela, anilla.

Z

zahar on egin: (esaera) zahartzarora osasunez heldu.

zaintiratua: masaje eta guztizko antzinako errito bat.

Orio eta belarrekin batera igurtzi eta esan: "Zain tiratu, zain urratu, zaina bere lekuan sartu".

zantzoa: irrintzia.

zedena: sitsa, zura zulatuz jaten duena.

zegan: ze preziotan.

ze(r)inakio: zer egin ez dakiala, ezer egin barik.

zelanbeist: nolabait, zelan edo halan.

zelotia: jeloskorra, zeloz betea.

zirkin: mogimendu.

zorroa: zakua.

zura: egurra.

zurezkoa: egurrezkoa.

zurrupatu: zurrut edan.

Egitura bereziak

-ginen: egiten

-keran: -ean

-otsa: hotsa

-etan = -tzen (adib. kantetan=kantatzen)

-(e)ez josita: beterik, ugari

-(r)i deutsala: ondoan baina ikutzen, apoiuan, arrimuan

-ri daukotsat, -tsazu... entzunda, esanda, etab = -ri entzuna diot...

-azo: erazo, erazi

-rik hara: -tik segituan; -tik hur; aldetik

-(e)n baino + ez + aditza = ez + aditza + (e)n (zegar galdera)

-(e)n beist: -(e)n -(e)la: (Adib. nor zaren beist = nor zaren zarela)

zein... + aditza (part. zein subj.): ...ean ere; ba...ere (gazt. por si...)

Aurkibidea

Astoaren jatorria	4
Astoaren izenaren etimologiaz	6
Astoa Euskal Herrian	8
Astoa biblian	10
Noe eta astoa	10
Balaamen astemea	11
Maria eta Jesus umea asto gainean	13
Jesukristo berbera asto gainean	14
Astoa abestietan	16
Gure astoa Balaan	16
Asto bat daukat saltzeko	17
Agur-agur astoko; ongi etorri otsoko	18
Astoa ikusi nuen	19
Arre-arre mandako	21
Domingo Kanpaña	21
Asto kontuak	22
Asto bibolinjolea	22
Astoa mitoetan	24
Asto demoniñoa	24
Supelegorreko astakume deabrua	26
Asto kexatiak eta Zeus	28
Jazorikoak	30
Grezian astoa zaldi	30
Txirritaren astakumea	31
Indiako astodun kontrabandista	35
Bainoako astoa	37
Astoa kanpaiotsean Uriondon	38
Asto apaintzailea	39
Astoa eta horma-uztaia	41

Esaundak	44
Astoa, zaldia eta mandoa	44
Astoa eta bere gaineko gazte zuziduna	45
CHANG-HUO-LAO txinatarraren asto magikoa	47
Persiako asto irakurlea	48
Astoaren untzejoa eta kanpabuelakoak	51
Astoa eta “Mikeldi”	52
Asto parek elkar ikusi ezinean	54
Mandazaina eta albokaria Parisen	55
Astoa kiroletan	57
Asto bazkaria zeruan	58
Astoa mandoari “belarri-handi” gedarrez	59
Astoa fabuletan	60
Astoaren astotasuna eta otsoaren astakeria	60
Astoa txakur-ametsetan	62
Asto pentsalariak	64
Indiako aiton-ilobak astoarekin	65
Astoaren jakituria	67
Txina aldeko Guizhou-ko astoa	69
Astoa eta otsoa	70
Asto emendatu ezina	71
Astoa, txakurra, katua eta oilarra	73
Astoa eta liburuak	76
Astoa eta idia	77
Astoa literaturan	78
Astoa euskal atsotizetan	78
“Sancho Panza”ren asto nabarra	79
“Platero” asto ospetsua	82
Urrezko astoa	84
Lucio astoa ilargiari erreguka	85
Ilargia Lucio astoari erantzuten	87
Psique eta Cupido	90



Juan Manuel Etxebarria Ayesta

Zeberiokoa.

Euskal Filologian doktorea.

Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

Euskaltzaindiakoa.

J. M. Barandiaranen Etniker taldekidea.

Herririk harako ikertzaile eta idazlea.

Gaurko mundu modernoan, ASTOA historiara pasatu dela esan daiteke. Baina lurtarren historian zehar astoak bere eginbeharra bete digu eta liburu entretenigarri honetan horrexen testigantza eskaini nahi genuke. Astoaren bizikerak, literatura idatziaren zein ahozkoaren bidez heldu zaizkigu gaurko egunetararte eta, gu geu zubi garela, etorkizunak ere ezagutu behar litzuke.

Astoa pertsonaitzat hartu den liburu honen bidez, munduko kultura ezberdinetako hizkuntza, mito, esaera, fabula, istorio, alegia, ipuin, esaunda eta abarretan sartu eta gozatzeko aukera ezin hobea eskaintzen zaizu. Irakurri eta zeuk ikusi.

"Astorik asto, zeresan asko".



ibaizabal

